Entering We can fully cater for one hundred skiers per skier group. To enter you must first pay 100 euro entry fee to our bank account and send your entry information to us by mail, fax or e-mail. Do not forget to inform us which skier group you want participate to: RR1, RR2, RR3 or RR4! Look for more information from back side of this brochure. When we recieve both money and your entry information you will get further information conserning the event. The whole price _____ will cover everything during that week. At the finnish day everyone who took part in the skiing will recieve a diploma and souvenir in rememberence.

Incurance We would recommend that take ot your personal insurance. Border to border organizers are not responsible for any accidents during the skiing week.

ETAPAS

1. Saunavaara-Kusamo: 63 Km.
2. Kuusamo-Taivalkoski: 72 Km.
3. Taivalkoski-Syote: 55 Km.
4. Syote-Ranua: 84 Km.
5. Ranua- Hosio: 44 Km.
6. Hosio-Keminmaa: 56 Km.
7. Keminmaa-Tormio: 70 Km.

PARTICIPANTES

- Enrique Aguado
- Iñigo Oyarzabal
- Dolores López
- Javier Larrañaga
- Antxon Gorrotxategi
- Alberto Gorrotxategi
- Poto Gorrotxategi

DIRECCIONES DE INTERES

- E-mail: anitta.jaakola@ranua.fi
- http://www.ranua.fi./tapahtumat
- RAJALTA RAJALLE-HIIHTO
  Aapiskuja 6 B FIN 97700 RANUA

BIBLIOGRAFIA

- CUADERNOS DE BARRABES
- CROSS COUNTRY nº 2

Pachecotarrak, musikarekin bat



Musikak azken urteotan daraman bidea ikusita, zaila izango da Hernani bezalako herri batean senitarte bereko lau anai-arrebak musikariak ateratzea. Bada, gezurra badirudi ere, Pachecotarren etxean horixe gertatu da: lauak musikari. Esaerak dioen bezala, musika odolean eramaten omen da eta, belaunaldi batzuk musikarik gabe pasatu arren, azken urteotan musika dariola familia honetan.

Herri honetan hain ezagun egin diren lau anai-arreba hauek Roberto, Laura, Jorge eta Itsaso dira; bi, zaharrena eta gazteena, saxofonistak, eta tarteko biak, berriz, perkusionistak.

Laura kontatzen duenez, birraitona musikaria omen zuten, tuba-jotzailea, harik eta Gerra Zibilean hil zuten arte. Amonak kontatzen omen zien umetan aitaren instrumentuaren barruan sartuta nola ibiltzen ziren, ezkutaketan jolasten.

Gerra Zibilaren ondorengo urte gogor haietan, eskolako ikasketak egitea ere zaila bazen, are eta zailagoak ziren musika ikasketak. Horregatik, familia honetako bi belaunaldi izan ditugu musika ikasketarik gabeak: amonaren belaunaldia eta gurasoen belaunaldia. Baina horrek ez du esan nahi Pachecotarrenean musika bizirik ez zegoenik. Denek dute belarri ona musikarako, eta instrumenturik jotzen ez jakin arren, beti izan dute festarako eta kanturako grina etxean. Gaur egun, etxean lau instrumentista bikain izanda, festa bihurtzen dute edozein ospakizun, segituan ateratzen baitu bakoitzak bere instrumentua, eta denen artean izugarrizko saltsa sortzen dute.



Pachecotarren birraitona Coriako (Cáceres) bandaren partaidea zen.

Lau anai-arrebek musika odolean bazuten ere, aipatzekoa da gurasoen lana. Beti eman diete ikasketak eta behar zuten guztia, nahiz eta askotan ahalegin ekonomiko handiak egin behar izan horretarako. Hasieran, musika ikasketak osagarritzat jotzen zituzten, ez baitzuten argi ikusten musikatik bizi zitekeenik. Musikaz aparte, unibertsitateko beste titulu bat atera zezaten nahi izan dute gurasoek. Hala, Laurak irakasle ikasketak egin zituen, eta gurasoen nahia bete zuen, baina zaharrenak, Robertok, ingeniaritza ikasten hasi eta, ahalmena izan arren, bertan behera utzi eta musika karrera egitea erabaki zuen. Erabaki latza, baina azkenean arrazoia berak eraman du, bere karreratik bizi baita, bai irakasle moduan bai instrumentista moduan lan eginez. Irakaskuntzan lan egin beharko zuela ikusirik, irakasle ikasketak ere egitea erabaki zuen. Beste biek, Jorgek eta Itsasok, Robertoren bidea ikusirik, musika karrera egitea erabaki dute; eta horretan ari dira buru-belarri.

Ikus dezagun, orain, lau anai-arreba hauek musikan egin duten bidea.



ROBERTOk, 30 urteko gazte honek, zortzi urte zituela hasi zituen musika ikasketak Hernaniko Musika Eskolan. Beste asko bezala, sortutako talde txikietan jotzen hasi zen, eta aurrerago herriko musika bandara salto egin zuen; 90eko hamarkadaren hasieran gertatu zen hori. Gaztetasunak ematen duen jotzeko grina hori baretzeko, ahalik eta talde gehienetan jotzen saiatu zen, eta bandaz gainera, hainbat txarangatan -Ortzadar txarangan, Txalaparta txarangan...- aritu zen. Baina urteak aurrera joan ahala, eta musika ikasketak gogorragoak izanik, saxofoia buru-belarri astintzen hasi zen. Zipri Otxandorena irakaslearekin Hernaniko Musika Eskolan oinarrizko maila bukatu ondoren, ikasketak Errenterian eta Donostian jarraitu zituen, Josetxo Silguero irakasle zuela. Harekin osatu zituen goi ikasketak, eta Musika Eskolan irakasle moduan lanean hasi zen.

Josetxo Silguero saxofonista bikainaz aparte, munduan zehar izen handia duten beste irakasle batzuekin zenbait ikastaro egin eta hainbat eskola magistral hartu ditu. Irakasleen artean, aipatzekoak ditu honako hauek: Arno Bornkamp, Marie Bernadette Charrier, Manuel Mijan, Jose Antonio Santos, Andres Gomis, Jean Michel Goury, Claude Delangle, Jean Marie Londeix...



Roberto tronpetalari ospetsu batekin, Wynton Marsalisekin.

Goi ikasketak bukatzearekin nahikoa ez, eta jazz munduan sartu zen. Harmonia modernoko eta jazzeko ikasketak egin ditu, hainbat irakasle bikainekin: Iñaki Salvador, Jon Dubuclet, Jon Robles, Antonio Peral, Iñaki Askunze, Mikel Andueza, Jackie Berecochea...

Hernaniko Musika Eskolan sortutako Hernasax saxofoi taldeko kide izatea lortu zuen ikasle zela, eta ordutik bertan jarraitzen du, askotariko musika motak lantzen. Gaur egun taldeko zuzendaria da; taldean, Musika Eskolako saxofoi-jotzaile aurreratuenak eta musika bandako saxofonistek parte hartzen dute eta Gipuzkoan zehar hainbat emanaldi egin dituzte. Horren bueltan, Hernasax saxofoi topaketak antolatu zituen 2006ko azaroaren 23tik 27ra. Lau egun horietan hainbat tokitik etorritako saxofoilariak eta estilo desberdinetako emanaldiak entzuteko aukera izan zen Hernanin.

Lehen esan bezala, Hernaniko Musika Eskolako irakasle da, 1998tik, eta bertako zuzendari, gaur egun. Bere eguneroko lana musikarekin loturik egon arren, musika hobby moduan ere erabiltzen du. Bere gustuko musika egiten duten bi taldetan, Mac Jeara's Band eta Pirineos Jazz Orchestra taldeetan, dabil gaur egun. Jazzarekin lotuta, gehien gustatzen zaiona kontzertuak ematea da, eta Robertok azpima-

rratzen dituen kontzertu berezien barruan, honako hauek dira nabarmentzekoak: 2002, 2003 eta 2004an Donostiako Jazzaldian; 2001, 2002, 2003 eta 2005ean Donostiako Musika Hamabostaldian eta 2005eko Getxoko Jazzaldian emandakoak.

Musikari gisa duen maila ikusita, ez da harritzekoa hainbat talderekin gonbidatu eta laguntzaile moduan aritu izana; besteak beste honako talde hauekin aritu izan da; Hernaniko Musika Banda, La Donostiarra Banda, Haizebeltz saxofoi laukotea, Errenteriako Big Band, Jazzle Big Band, Ehme Big Band... Eta gonbidatu laguntzaile gisa jardun du honako hauetan: Oiasso Novis, Aksax, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Hungariako Szegedeko Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Orfeoia, Donostiako perkusionistak...

Edozein musikarik du gogoko bere lana grabatzea, eta horretan ere saiatu izan da Roberto. Hainbat disko grabatzen laguntza eman du, baita irrati eta telebistako saioei musika jarri ere. Azkenaldi honetako azken grabazioa Ramon Salazarren *20 zentimetro* filmerako soinu banda izan da; eta Randy Brecker eta Pirineos Jazz Orchestrarekin ELKAR disko etxeak argitaratutako *Transatlantic Connection* diskoa grabatu du.

Robertoren ondorengoa Laura da; biek batera hasi zituzten musika ikasketak, baina instrumentu desberdina aukeratu zuten.

LAURAk 29 urte ditu; zazpi urterekin hasi zituen ikasketak Musika Eskolan; beraz, 22 urte musikaren munduan murgildurik. Baina berak egin duen ibilbidea Robertok egindakoaren oso bestelakoa da.

Esan dugunez, zazpi urterekin hasi zen Hernaniko Musika Eskolan perkusioa ikasten, Jesus Mari Garmendia irakasle zuela. Lehenengo errepikak ikasi orduko, Musika Eskolako txistu eta dultzaina taldeekin herriko festetan, inauterietan, azeridantzan, akelarrean, txalaparta festan eta halako hainbat ekitalditan parte hartzen hasi zen, bere danborrarekin. Urteak aurrera joan ahala, eta bere maila igotzen hasi zela ikusirik, hainbat taldetan parte hartzeko hots egiten zioten. Horietako talde bat, eta berarentzat garrantzitsuena, Hernaniko Musika Banda izan zen. Hamalau urte zituela musika bandako kide egin zen, eta hamabost urte eta gero, hantxe jarraitzen du asteroko entseguetan jo eta su, igandetako kontzertuak prestatzen. Hamabost urte hauetan era desberdinetan parte hartu du bandan. Musikari moduan hasi zen, baina 21 urte zituela bandako Presidente izendatu zuten, Bandako kideen onespenarekin. Urte batzuk pasatu eta gero, kargu hartan txanda eskatu, eta duela urtebetera arte bandaren artxiboa zaintzen jardun du. Beraz, goraipatzeko lana egin du bandan.



Ortzadar Txaranga 1995-96. urteetan. Beste hernaniar artean Roberto, Laura eta...




Bandan sartu zeneko garai berean, Ortzadar txaranga sortu zen Hernanin; kide guztiak Musika Eskolako ikasleak eta ikasle ohiak ziren, eta tartean Laura zegoen, perkusio-jotzailea. Talde hartako kide ziren lau anai-arrebetatik hiru; laugarrena oraindik txikitxoa baitzen, lau urte besterik ez zituen. Txaranga hura guztiontzako jauzi ohol moduko bat izan zen; txarangak ez zuen urte asko iraun, baina kide guztiok beste txaranga batzuetan jotzen amaitu genuen, Ortzadarrekin ezagutzera eman eta gero. Laurari dagokionez, Kantauri txarangara egin zuen salto, eta talde horrekin Euskal Herri osoko herrietako festak alaitzen aritu zen.

Garai hartan, eskolako ikasketak eta Donostiako Goi Kontserbatorioko ikasketak batera egiten ari zen. Kontserbatorioan, perkusioko maila ertaineko ikasketak egin zituen, Vicente Mateu eta Donato Goyenecherekin, eta Unibertsitatean irakasle ikasketak. Kontserbatorioan ikasten ari zela, bertako perkusio taldean jotzen hasi zen. Talde harekin Parisen, Madrilen, Sevillan, Bilbon, Donostian eta beste hainbat hiritan eman zituen kontzertuak gogoan ditu Laurak; garai hark oso oroitzapen onak ekartzen dizkio.

Ikasketak amaitu, eta Hernaniko La Inmaculada ikastetxean lanean hasi zen, Lehen Hezkuntzako ikasgaien eskolak eta musikakoak ematen. Gaur egun bertan jarraitzen du lanean. Horregatik nioen, hasieran, Robertok eta Laurak musikan egindako bidea oso desberdina izan dela. Bata Musika Eskolako irakasle eta instrumentista iaioa eta bestea, ikastetxean eskolak ematen; bi bide, baina biak egokiak musika maitatzeko.

Hirugarren senidea aurreko bien fusio moduko bat dela esan daiteke. Alde batetik perkusio-jotzailea da, eta, bestetik, bere musika karrera instrumentista izatera bideratu du. **JORGE** du izena, eta duela 25 urte jaio zen. Perkusioa ikasten 11 urterekin hasi zen eta berehala hainbat taldetan sartu zen. Gogoan dut nola etortzen zen erdi lotsatuta Ortzadar txarangaren entseguetara; baina azkar kendu genizkion lotsak. Ezagutzen dugunok badakigu, bai, nolako mutila den, edozein oztoporen aurrean kikiltzen ez den horietakoa.



Hernaniko Musika Eskolan Jesus Mari Garmendiarekin hasi zituen ikasketak, eta, ondoren, Errenteriako Musika Eskolara joan behar izan zuen beste maila bat egitera. Hamahiru urte inguru zituela, Hernaniko Musika Bandan hasi zen jotzen, eta gaur egun bertan dihardu, bandari erritmoa jarriz.

Hamazazpi urte zituela Euskadiko Gazte Orkestrarako hautatu zuten; Juanjo Mena zuzendariaren agindupean ibili zen han, 2002. urtera arte, tinbalak jotzen. Garai honetan orkestrako errepertorioko, ganbera musikako eta instrumenturako eskola asko hartu zituen, besteak beste irakasle hauekin: Joan Ibarra, Josep Vicent, Martin Owens (Royal Philarmonic-ekoa) Robert van Sice eta Cesar Peris.

2001ean Pablo Sarasate Orkestra Sinfonikoan laguntzaile moduan hasi zen, eta 2003an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta Donostiako Orfeoian. Orkestra horietan honako zuzendari hauen agindupean lan egin du: Jesus Lopez Cobos, Miguel Angel Gomez Martinez, Wayne Marshal, Oleg Caetani, James Judd, Heinrich Schift, Josep Pons, Enrique Garcia Asensio... Askorentzat ezezagunak izango dira, baina musika munduan sartuta dagoen edonorentzat ohore handia litzateke horrelako zuzendarientzat lan egitea.

Jorgek, Robertok bezalaxe, gogoan ditu orkestra horiekin jotako kontzertuak, besteak beste honako leku hauetakoak: Lisboako Expo98, Segoviako Uda Musikala, Donostiako Musika Hamabostaldia, Kroaziako Bjelovareko Perkusio Jaialdia, Zagrebeko Litsinski auditorioan, ...

Hasieran aipatu dugunez, gurasoen lana oso garrantzitsua izan da horrelako musikariak ateratzeko. Jorgerekin egin duten lana izugarria izan da: irakasle onenekin klaseak hartzeko aukera eman diote eta beti izan dira laguntzeko prest. Laguntza horri esker lortu du Jorgek Jan Pustjens (Royal Corcertgebow) Nick Woud (Royal Corcertgeboweko tinbal-jotzailea) Nancy Zeltsman, Igor Lesnik, Nick Petrella eta Angel Frette bakarlari eta perkusio pedagogo handien eskolak hartzea.

Orkestretan jotzea gustukoa badu ere, ezin du bere jatorria ahaztu, eta horregatik, ahal izan duen guztietan parte hartu du euskal musika jotzen, Donostiako eta Bilboko txistulari bandekin. Jazza ere gustukoa du, Robertok bezalaxe, eta Donostiako eta Zarautzeko Nazioarteko Jazz Jaialdietan parte hartu du, XX. mendeko hasierako jazza joz, eta modu horretan bere instrumenturako errepertorioa berrituz.

Musikari ezagunekin ere egin izan ditu kolaborazioak, adibidez Mikel Laboa eta Serratekin. Aurten, Michel Camilo Latin-Jazz pianista ospetsuarekin jo du.

Gaur egun, nahiz eta musikari gisa izugarrizko maila izan, ikasten jarraitzen du. Donostiako MUSIKENEn, Gustavo Gimeno (Royal Corcertgebowko perkusio bakarlaria) eta Gratiniano Murcia (OBCko tinbal jotzailea) irakasle dituela, goi mailako 3. maila egiten ari da. Ikasteaz aparte, hainbat oposiziotara aurkeztu da



Jorge Royal Albert Hall-en Londonen, 2006ko abuztuan.



eta Claudio Abbadok zuzentzen duen Gustav Mahler Gazte Orkestran perkusio-jotzaile plaza lortu du eta orkestra honekin ibili da Europan zehar 2006ko udan, besteak beste Donostiako Hamabostaldian.

Hirutik bik perkusioa aukeratu bazuten, laugarrenak, **ITSASO**k, saxofoia aukeratu zuen, anaiaren bideari jarraitu nahian. Hemeretzi urteko neskatxa honek argi dauka zer ibilbide egin nahi duen: instrumentista izan nahi du, anaia Roberto eta Jorge bezalaxe.

Itsasok Hernaniko Musika Eskolan hasi zituen saxofoi ikasketak, zortzi urterekin. Erramun Oiartzabal izan zuen irakasle, lehenengo bi urteetan, eta, ondoren Roberto, anaia,... bai eskolan bai etxean. Hain gaztea izanik, izugarrizko etorkizuna du Itsasok; baina ez da harritzekoa, familian duten sena eta horrelako irakaslea edukita.

Maila ertaineko ikasketak bukatu ditu Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan, Elisabet Elizalde irakaslearekin. Kontserbatorioaz aparte, beste anai-arrebek bezalaxe, eta gurasoen laguntzarekin, saxofoi bakarlari eta pedagogo ezagunen eskolak jaso izan ditu, honako hauenak, besteak beste: Arno Bornkamp, Iwan Roth, Carola Cuipers, Radek Knop, Jose Antonio Santos...

2002an, hamalau urte zituela, Hernaniko Musika Bandan jotzen hasi zen, ikasle moduan, eta gaur egun bandako saxofoi bakarlaria da. Beste banda batzuetan ere jo izan du, La Donostiarra Bandan eta La Donostiarra Orkestra Sinfonikoan besteak beste. Anaia zuzendari duen Hernaniko Hernasax saxofoi taldeko kide ere bada, eta Lauhaizeta akordeoi orkestran bakarlari moduan parte hartu izan du.

Ikasketekin orain arte bezala jarraitzen badu, bere anai-arreben maila hobetuko duela ziur nago.

Horixe duzue, bada, Pachecotarren familiak orain arte eman digun altxorra; baina espero dut altxor hori aberasten joango dela, bai lau anai-arrebei esker, baita Lauraren bi urteko semeari esker, Josebari esker. Hori baitugu bosgarren Pachecotarra, ostegunetako bandako entsegu bakar batera ere kale egiten ez duena. Hantxe igarotzen ditu entseguko lehen minutuak, danborra astintzen. Gogoan izan ezazue umetxoa, bera izango baita hemendik 20 urtera zeresana emango duena.

Benigno Albeniz, uztargilea



Benigno Albeniz Maiz Iruntxi Berri baserrian jaio zen, 1935ean, Aiako San Pedro auzoan. 19 urte zituela hernaniar bihurtu zen Loidiko Jone Otegirekin ezkondu zelarik; 5 seme-alaba izan zituzten. Berak egindako uztarriei esker Euskal Herriko ehunka idi pareri lan astuna errazagoa bihurtzen ahalegindu da. Uztargileen artean maisutzat hartu beharko genuke. Iraultzaile bihurtu zaigu uztargileen munduan; bere jatorrizko marrazki apaindurari esker, bereziak bilakatzen ditu berak sortutako uztarriak, bakarrak, Benigno Albeniz markakoak. Urte asko daramatzat ofizio honetan, baina nire begiekin ikusteko aukera izan dudanez, oraindik egur lanarekin inork ez bezala gozatzeko gai dela esango dizuet. Santa Barbara auzoan duen tailerrean, bere lanen begiradapean, berari buruz hitz egiteko aukera ederra eman digu.

Nondik datorkizu egurrarekin lan egiteko afizioa?
Dakidanez, familiako inork ez zuen egurrik landu. Txikitan ikasketa gutxi eta lan asko egin izan behar genuen, astirik ez nuen egurrik lantzeko, nahiz eta betidanik atsegina suertatu. Aiako San Pedro auzoko ermitako San Pedro egurrezko irudi polita daukat buruan, ziurrenik hura izango zen ikusi dudan lehendabiziko egur tailua.

Hernanira etorritakoan hasi zinen uztarriak lantzen.
Bai, hala da, Pablo Lasa zenarekin ikasi nuen ofizioa, orain dela 50 urte inguru. Garai haietan 50.000 pezeta ordaindu nizkion berak zekiena niri erakusteko. Diru asko zen garai hartako. Atsegin ez zitzaidan beste lan batean nenbilen orduan, eta uztargile izateko aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen.

Lan finkoa utzi eta uztargile gisa saiatu.
Ez nekien burua altxatuko ote nuen uztargileen ofizioan. Uztarriak egiten ikasten ibili direnak mordo bat izan dira, baina jarraitu edo bizimodua aurrera atera dutenak, gutxi. Garai haietan uztargile asko



ginen, konpetentzia handia zegoen. Hala ere, Pablok eta nik egunean bana egiten genuen, batzuetan iritsi ezinik ibiltzen ginen. Gehienbat Hernani ingururako egiten genuen lan. Baserrira joan, idiei burua eta adarrak ahal zen ondoen neurtu, eta tailerrera bueltatzen ginen lanera.

Ze egur mota erabiltzen da uztarriak egiteko?
Pagoa, hilberrian moztutakoa bada, hobe. Zerratokietakoei erosten diegu gehienetan, beraiek ongi baitakite zer egur nahi dugun. Uretan kontserba-

tzen da hobekien, lan egiteko garaia iritsi arte. Uztarria egiteko garaia iristen denean, enborra lau zatitan banatzen da, laurdendu. Erditik pitzatu, ez moztu, bihotzetik partitu behar da, egurrak bizioa duen begiratu. Bizioa edukiz gero, kendu egin behar zaio, bestela, uztarria, denborarekin, hautsi egiten baita. Pagoa, uretan utzita, betiko omen da, oso ondo kontserbatzen da, Pasaiako eta Donostiako portuak pagoaren gainean eraiki dira, eta hor diraute sekulako. Behin lana amaituta, linazi olioa eta Politus erabiltzen ditut, egurra behar den bezala sendatzeko; horrelako tratamenduarekin, egurrak betiko iraun dezake.

Garai batean uztarriak egiteari utzi egin zeniola entzun dut.

Une zailak etorri ziren uztargileentzat, traktorea azaltzen hasi zenean; ofizioa desagertzear ote zegoen galdetu nion neure buruari. Naiz eta gustura egon, beste lan batean hasi nintzen; kostata, ofizioz aldatu nuen.

Eraikuntzan denboraldi bat igaro eta gero, Hondarribian taberna ireki zenuten.

Han hasi nintzen berriro uztarriak lantzen. Pablo Lasa bihotzekoak jota hil zen, eta hark behin esandakoaz gogoratu nintzen: zazpiko uztarria egin behar zuela. Nik egin behar nuela erabaki nuen. Hura izan zen berriro hasteko arrazoia. Baztanen egur mordo bat erosi, uretan sartu, eta zazpiko uztarriarekin hasi nintzen. Oso ondo moldatu nintzen hainbeste urte eta gero. Baina gehien harritu zirenak tabernako bezeroak izan ziren. Zazpi euskal probintzien armarriak dituen uztarri hura Hernaniko Tripontzi tabernan dago gaur egun ikusgai, lehen Iruntxi izandakoan, Hernanira itzulitakoan ireki genuen tabernan.

Harrezkero buru-belarri hasi zinen berriro egurrean.

Enkarguak gero eta gehiago ziren, egur kutxak, armarriak, zizelkatze lanak, eta uztarriak ere bai. Azoketara ere joaten nintzen, Euskal Herri guztian zehar ibili nintzen. Uztarriez aparte, beste egur lan batzuk ere geroz eta gehiago gustatzen zitzaizkidan, nahiz eta uztargile bezala izan ezaguna. Pablorekin nengoenean, nik egiten nizkien apaindurak, marrazkiak, uztarriei. Azoketan asko ibilia naiz, baino orain ez zait komenigarria iruditzen; artisau azokak asko aldatu dira, lehen maila hobea zegoen, eta ematen ziguten dirua ere, oraingoarekin konparatuta, gehiago zen.



Beraz, uztarriez aparte beste egur lan batzuk ere egiten dituzu.

Oso gustura gainera. Orain bertan askozaz gusturago sentitzen naiz beste egur lan batzuk egiten, uztarriak egiten baino. Uztarri enkarguak orain gogorregiak dira niretzat; ez zaizkit komenigarriak iruditzen, baina enkarguak konplitzen ditut. Baserritarrek uztarria ona eta polita izan dadila eskatzen didate; garestiagoa suertatu arren, marrazki ederrak izan ditzala. Gainerako uztargileetatik bereizten nauena nik egindako apaindura bereziak dira, nire markakoak. Erraz moldatzen naiz lan guztietara.

Artisau, artista... Nola definituko zenuke zeure burua?

Sordun, sortzaile, artisau... berdin zait. Niri gustatzen zaidana egiten dut. Nire berezko estiloa dut, basatia, basokoa bainaiz. Gauza asko egin ditut, baina, denbora izanez gero, askozaz gehiago egitea gustatuko litzaidake. Nahiz eta argi eduki lana hasi baino lehen zer egin, lanaren arabera, aldatzeko aukera ere ez dut baztertzen. Inork ez ditu nik egiten ditudan moduko lanak egiten; urteen poderioz neure estilo propioa aurkitu dut. Tailerrera etortzen zaizkidan bezeroek batzuetan erreta egiten didate uztarri xinpleak, marrazki gabekoak nahi, eta ez dituztelako tailerrean aurkitzen.

Zer motatako apaingarri edo marrazkiak lantzen dituzu?

Naturarekin zerikusia dutenekin aritzen naiz gehienbat. Zuhaitzak, bereziki, asko atsegin ditut. Ezin dizut esan zehazki zer motatako zuhaitzak diren; berdin zait, zuhaitzak dira. Uztarrietan asko ipintzen ditut, baina eskultura modura ere asko egin ditut: banaka, binaka, okertuak, zuzenak oso gustukoak ditut. Animaliak ere asko erabiltzen ditut: txoriak, ahariak, astoak etab. Astoa asko maite dudan abere da; hazienda inteligentea da oso, zintzoa non eta hala tratatzen baduzu. Marrazki geometrikoak neure erara moldatzen ditut. Giza irudirik ez dut landu, baina bai eskuak. Uztarritik kanpo, esku eskulturak egin ditut. Egiten ditudan lan guztiei, txarra edo ona izan, atzealdean nire marka jartzen diet: Albeniz, eta etxeko telefonoa.

Ofizioan hainbeste urte igarota, enkargu bitxiren bat jaso al duzu?

Denetatik izan dut hainbeste urtean, baina orain dela gutxikoa izan da bitxiena, Zaragozako bikote batena, alegia. Ez dakit nola, Internet bidez aurkitu zuten



nire telefonoa; nirekin harremanetan jarri, eta hiruko uztarri sendo bat enkargatu zidaten. Uztarri museo bat omen dute, Zaragozan. Museo horretan, Espainiako beste lurraldeetan egiten diren uztarriak jasotzen dituzte. Sekulako afizioa diete uztarriei, idi probak ere izugarri gustatzen omen zaizkie.

Nola ikusten duzu uztargileen ofizioaren etorkizuna?

Lanbidea ez dut arriskuan ikusten: gutxitzen goaz, baina oraindik bagaude; idi probak egiten diren bitartean, ez dut arriskurik sumatzen. Ez dut erakusteko balio; hala ere, Iñigo, semea, nahiko ondo moldatzen da, nahiz eta beste lanbide bat eduki. Ofizioa menderatzen duzunean, disfrutatzen da; berak menderatzen bazaitu, berriz, ez da batere atsegina, ofizio arraroa da, lan zaila da.





Visión artística de Hernani

En 1987 la Comisión de Cultura municipal puso en marcha el denominado "Eskulturagintza plana" o "Plan de Esculturas" con el que se instalarían en varios puntos de la localidad una serie de esculturas, sobre materiales perdurables, todas ellas realizadas por artistas hernaniarras.

De ellas, hoy una ha desaparecido, "Marimeta", obra de Jon Iturrarte, realizada en ladrillo e instalada en Sorgintxulo.



"Noria"
Carlos Vázquez
Sandiusterri.



Sin título
Pedro Mª Infante
Portaletxoko.



"Bizkiak"
Iñaki Saralegi
Felipe Sagarria "Zapa" kalea.



Sin título
Txema Calero
Parque Jose Manuel Aristimuño "Pana".

Orain dela 70 urte



2006ko ekainaren 3an 70 urte bete ziren Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* bertsolari handia hil zela.

EUSKERARI
(1935)

Larogei urte gainean ditut,
Nago hanketako minez,
Donostiara etorria naiz
erren haundia eginez.
Bi bastoirekin txit larri nabil
pausorik eman ezinez.
Euskera ia ahaztu zait eta
erderarikan jakin ez,
maixu batekin eskolan laxter
hasi behar det latinez.

Bukaeran eskuarekin José Ariztimuño "Aitzol" apaiza seinalatu zuen, maisu bera aukeratua zuela, alegia.

Maisu hura, José Ariztimuño *Aitzol*, hurrengo urtean frankistek hil zuten.



Aurten 70 urte betetzen dira ere frankistek, estatu kolpea eman eta gerra probokatu ondoren, Hernani eta Euskal Herria errepresio basati eta gordinez odoleztu zutela. *Aitzol* eta beste ehunka abertzale, sozialista, komunista edo errepublikar euskaldun -hogei bat hernaniarrak- fusilatu zituzten Hernaniko kanposantuan.


143ª COMANDANCIA DE LA GUARDIA CIVIL — 1ª COMPAÑIA — LINEA Y PUESTO DE HERNANI

RELACION nominal de los enterramientos colectivos que existen en la demarcacion de este Puesto, expresiva de antecedentes.-

Nombres y apellidos	Fecha del fallecimiento Dia	Mes	Año	Lugar en que se hallan enterrados		Observaciones	
Don Martin Lecuona Echaveguren	9	Octubre	1.936	Cementerio de Hernani		Ejecutado por los Nacionales	
Don Gervasio Albisu Bideaur	9	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don José Aristimuño Olaso	18	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don José Adarraga Larburu	18	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don Celestino Onaindia Zuluaga	28	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don Jose Maria Elizalde Zubiri	18	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.
Don Gabino Alustiza	27	Octubre	1.936	Idm.	Idm.	Idm.	Idm.

N O T A .- Se hallan enterrados juntamente con los reseñados anteriormente unos 190 individuos mas aproximadamente, cuyos nombres se desconocen totalmente los cuales tambien fueron ejecutados por las Fuerzas Nacionales.

Hernani 17 de Junio de 1.958
El Cabo 1º Comandante Puesto acctal




1936ko gerran frankistek hil eta desagertarazitako guztien omenez.

Hernaniko Udala

Atzo Cinco Cantones...






1960ko hamarkada



Gaur ...Zinkoenea plaza



1994



1998



2006





Reforma del Monasterio de San Agustín de Hernani



APUNTES HISTORICOS

La construcción del Monasterio se remonta al año 1544, cuando el Obispo de Pamplona, D. Pedro Pacheco, a cuya sede episcopal pertenecía la villa de Hernani, concedió licencia a Juan Martinez de Ereñozu, señor de la casa y herrerías de Ereñozu, y vecino de Hernani, para levantar y fundar el cenobio, en la antigua Parroquia de San Juan Bautista, situada extra-muros e indefensa, y cuya construcción, que había sufrido graves daños en el saqueo e incendio causados por las tropas francesas en 1512, salvándose únicamente las cuatro paredes sencilla, se encontraba sin uso por haberse trasladado la parroquia al interior del recinto murado.

Se iniciaron las obras edificando la iglesia del Monasterio sobre la traza del viejo existente, y en una segunda fase se levantó la residencia de las religiosas "fuera de dicha iglesia, cerca y unida a ella, con campanil, claustro, refectorio, dormitorios y otras oficinas necesarias para ello".

El 13 de noviembre de 1547, Juan Martinez de Ereñozu otorgó al Monasterio la escritura de donación y obligación, reservándose para sí como patrón y fundador, y sus herederos, una sepultura con tumba.

A pesar de que los documentos existentes apenas dejan entrever en adelante el proceso de construcción del Monasterio, se sabe que en 1577 las monjas afrontaron la renovación total del coro, siguiendo el diseño del maestro de San Telmo. En 1657 se obtuvo licencia para construir un lagar y una hospedería, y en 1684 se levantó una nueva casa vicarial.

Con motivo de las diferentes guerras, en los años 1638, 1719, 1794 y 1808, la Comunidad tuvo que abandonar el Monasterio, y éste, que sirvió en ocasiones de alojamiento a las tropas, sufrió importantes destrozos, particularmente durante la Guerra de la Independencia, lo que obligó a reconstruir la iglesia y la residencia del Monasterio, gastando las religiosas importantes sumas de dinero, y viéndose precisadas a vender algunas fincas. En estos sucesos se perdieron parte de los documentos referentes a las cuentas conventuales.



Al celebrarse el 400 aniversario de la fundación, en 1947, las monjas construyeron una terraza, y en 1988, se abordó con ayudas oficiales y particulares, la renovación de la cubierta de la iglesia. Ya en época más reciente, en 1997, se procedió a la restauración de la torre-campanario.

Por Orden del 17 de enero de 1964, el Monasterio de Agustinas fue declarado monumento provincial de interés histórico-artístico.

OBRAS DE REFORMA

1.- Preámbulo.

Al situarse los terrenos monacales en un lugar significativo de la trama urbana de Hernani, rodeados de otras áreas urbanizadas, fueron aquellos objeto en los últimos años, de expectativas diversas en orden a concluir la conformación urbanística de la zona, con presiones exteriores de tipo inmobiliario, que por una causa u otra no fructificaron.

El tiempo transcurría inexorablemente y el edificio monástico iba deteriorándose y debilitándose a pasos agigantados, con la consiguiente inseguridad y cuantiosos gastos de reparación a los que tenían que enfrentarse la Comunidad. Además parecía por otro lado obligado, que el conjunto del Monasterio, edificio y terrenos, acomodase sus espacios y superficies a la realidad física y numérica de las religiosas, dotando a las mismas de unas mínimas pero dignas condiciones de bienestar.



A principios del año 2000, toma la iniciativa el Ayuntamiento de la Villa, y tras un periodo de consultas mutuas donde la Comunidad pudo exponer sus inquietudes, en mayo de este año, la Corporación municipal presentó una propuesta de reordenación de la denominada área de Agustinas, cuyo ámbito comprendía la propiedad de las monjas y otras propiedades colindantes. Dicha propuesta, que mantenía en un principio la calificación urbanística asignada a dicha área por las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Hernani, planteaba la creación de dos parcelas, una para los usos terciarios establecidos en las citadas Normas, y otra reservada al Monasterio, consolidando así el aprovechamiento religioso, y muy respetuosa con la singularidad del mismo.

Dada la carencia de recursos de las religiosas, la propuesta, aceptada en principio por la Comunidad, tendría que garantizar que los rendimientos económicos obtenidos con la enajenación de los aprovechamientos edificatorios correspondientes al Monasterio, fueran suficientes para acometer la reforma en profundidad y la rehabilitación del edificio monástico, asegurando así la salvaguarda del bien cultural y la continuidad de la Comunidad presente en Hernani desde su fundación a mediados del siglo XVI, por lo que a tal fin, y antes de iniciar los correspondientes trámites administrativos y recabar las pertinentes autorizaciones, se evacuaron consultas a diferentes empresas constructoras.

Dos de ellas, muy vinculadas al municipio hernaniarra, manifestaron su interés en la promoción, y se dispusieron a comprar solidariamente la parte de los terrenos que excedían de la parcela reservada al propio Monasterio. Se confirmaba así la viabilidad de la operación, y la Comunidad vislumbró con fundadas esperanzas, que la ansiada reforma, después de tantas y tantas penalidades, podría llevarse a efecto a corto o medio plazo.

A partir de este momento se sucedieron a buen ritmo y siempre con la tutela del Ayuntamiento, las visitas a los diferentes organismos oficiales, tanto civiles como eclesiásticos, para exponerles la propuesta de reordenación del área de Agustinas, y más concretamente lo que en ella se establecía de cara al interés de la Comunidad.

En noviembre de este mismo año 2000, el Sr. Obispo de la Diócesis de Donostia-San Sebastián, siendo favorable a la operación de venta, solicitó a la Santa Sede su autorización. Esta no se hizo esperar, ya que a los pocos días, la Congregación para los Institutos de vida consagrada y las Sociedades de vida apostólica del Vaticano, concedió su licencia para vender una parte de los terrenos del Monasterio.

Como consecuencia de la competencia exclusiva asumida por Euskadi en materia de patrimonio cultural, y la aprobación posterior por el Parlamento de Vitoria-Gasteiz de la correspondiente Ley, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en julio de 2001, adoptó mediante Decreto a las prescripciones de la citada Ley de Patrimonio Cultural Vasco, el expediente de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, del Monasterio. Dicho Decreto, además de la descripción formal del mismo, delimita su entorno de protección y



aprueba asimismo el régimen de protección a aplicar al propio edificio y su entorno, describiendo junto a unas disposiciones generales y usos permitidos, los criterios de intervención constructiva permitidos sobre el inmueble.

Entendiendo que las aprobaciones obtenidas hasta el momento, aseguraban en buena medida la idea de reforma, la Comunidad decidió abandonar la casa de Hernani, y el 29 de septiembre de 2001, se trasladó al hermano Monasterio de Nuestra Señora de los Remedios, en Artziniega (Araba).

Paralelamente a las gestiones realizadas, y con el objeto de que las determinaciones planteadas en la reordenación del área de Agustinas tuvieran un refrendo legal, y en el caso del Monasterio se ajustaran al Decreto de julio de 2001, el Ayuntamiento, previas consultas a los diferentes departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, competentes en el tema, redactó el denominado "Proyecto de Modificación de Elementos de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico de Hernani". Tras su aprobación inicial y provisional por la Corporación municipal, fue remitido el expediente a la citada Diputación Foral para su sanción definitiva, que tuvo lugar el 24 de septiembre de 2002.

La ficha urbanística relativa al Monasterio, formulada en el Proyecto de Modificación de Elementos, reitera la consolidación del edificio monástico y del uso de equipamiento religioso existente, y declara fuera de ordenación parte de las edificaciones sustituibles que rebasaban los límites del área ordenada, así como la casa vicarial, próxima al Monasterio, y también propiedad de la Comunidad.

2.- Proyecto de reforma.

Una vez resueltas las diligencias anteriores, continuó el proceso con la elaboración del Proyecto Básico y posterior de Ejecución, para la Reforma y rehabilitación del Monasterio.

2.1.- Características del antiguo edificio monacal.

El conjunto monástico estaba compuesto por diferentes cuerpos edificatorios, tales como la iglesia y sacristía, residencia fundacional adosada a la anterior con claustro alrededor de un patio interior con balcón, ampliación posterior para uso residencial complementario y también para la actividad agropecuaria desarrollada en tiempos pretéritos, hospedería, cuadra y terraza.



Salvo la iglesia y especialmente su portada románica-ojival propia de las construcciones de fines del siglo XII y principios del siglo XIII, que es realmente la pieza más atractiva del Monasterio, tanto el claustro como las demás dependencias son de escaso interés arquitectónico. Hay que destacar el carácter modesto de la edificación, su austeridad constructiva. La ornamentación no cuenta en el cenobio, y los elementos estructurales no tienen valor artístico alguno. La funcionalidad se impone a cualquier otro valor, adquiriendo total y absoluta primacía, sin concesión formal alguna.

En relación a la clausura original, es decir al cuerpo fundacional del siglo XVI, buena parte de las dependencias, especialmente las de la planta primera, fueron alteradas al objeto de acomodarlas de forma pragmática a las necesidades que a lo largo del tiempo, y a consecuencia del desenvolvimiento de la vida diaria, fueron surgiendo.

La construcción posterior del cuerpo agregado, de considerables dimensiones, y su entronque con el fundacional, supuso también a buen seguro, el replanteo distributivo de algunos aposentos, y la alteración del orden espacial existente.

Todo ello tenía su lógico reflejo, no solamente en la caótica composición de sus fachadas exteriores, sino incluso en el análisis volumétrico del conjunto monacal, que mostraba asimismo las diferentes etapas de su creación.
Debido al mal uso de la edificación, en ocasiones por causas o acontecimientos ajenos al Monasterio, por las transformaciones habidas en el mismo, y por la carencia de recursos, la organización general de la estructura primigenia había sufrido importantes variaciones, en detrimento de su capacidad portante.

Por otro lado, la extrema decrepitud de los elementos constructivos del inmueble, fruto de la antigüedad del edificio, de la humedad, de las malas condiciones de los materiales, y también de la falta de importantes inversiones para su reparación, dada la limitada disponibilidad económica de las religiosas, que se reduce a los escasos ahorros provenientes de su trabajo, pensiones y donaciones, provocaban serios problemas de habitabilidad, que incluso repercutían en la salud de las residentes.

2.2.- Descripción de la reforma.

Hay que señalar en primer lugar que la iglesia con su portada y la sacristía, restauradas con anterioridad, no han sido objeto de intervención.

A la vista de la composición arquitectónica existente en el Monasterio, y de su desarrollo cronológico, y teniendo en cuenta el programa de necesidades elaborado por la Comunidad, surgió en principio la idea de derribar la ampliación levantada en época posterior a la fundación, que ocupaba importantes espacios desocupados a causa del cese de la actividad agraria y ganadera, y ordenar los usos residenciales como en origen, alrededor del claustro, en el cuerpo fundacional.
Ello no fue posible, ya que con los estudios previos realizados, se llegó a la certeza de que tal edificio fundacional, por falta material de superficie, no podía responder adecuadamente a las exigencias demandadas por la Comunidad, siendo imprescindible por lo tanto ampliar su actual capacidad constructiva, levantando un nuevo edificio en compensación del cuerpo que se proyectaba derribar.

En la nueva distribución de dependencias, y al objeto de evitar drásticas modificaciones de hábitos en la regular vida monástica, se tuvo muy en cuenta la configuración de los espacios existentes, así como la disposición arquitectónica que en origen tuvo el edificio, y como no, las sugerencias expuestas por la propia Comunidad.

De forma resumida la intervención reformadora contemplada en el proyecto fue la siguiente:

- Demolición del edificio levantado con posterioridad al cuerpo fundacional, hospedería, cuadra, terraza y balcón en patio

La ausencia de valores, la condición de añadidos degradantes, el estado de profundo deterioro, y en algunos casos la desaparición de usos que dieron origen a su construcción, hacían imprescindible la demolición de los mismos.





- Renovación del edificio fundacional que constituye la parte residencial principal de las religiosas, vaciando previamente su interior, salvo los muros estructurales exteriores e interiores, y manteniendo inalteradas las características de los elementos considerados como fundamentales, y por consiguiente de especial protección, tales como volumen, altura, superficie y dimensiones de planta, número de pisos, disposición de la cubierta, estructura general, etc.

La puesta en valor del aspecto arquitectónico, con el restablecimiento de los valores originales de las partes alteradas, ha supuesto la restauración de las fachadas internas y externas, incluso con modificaciones que no han alterado la unidad de su composición; la restauración de los espacios interiores en las dos plantas, conservando o implantando el esquema básico de distribución general y la organización espacial original; y la conservación o el restablecimiento del claustro.

- Creación de una nueva edificación residencial complementaria, sustitutiva del cuerpo a demoler, y albergando las dependencias destinadas principalmente a servicios, que no tienen cabida en el edificio fundacional. Entre ambas construcciones, la original y la nueva, y a modo de elemento de unión, se sitúan la escalera y el ascensor, precedidas de un vestíbulo. Este se comunica con una entrada secundaria, en parte cubierta, que además de relacionarla con la huerta monacal, permite por medio de un vial, su conexión con otra puerta exterior del Monasterio, utilizada para el suministro de provisiones, material de trabajo, etc.

- Reconstrucción de la hospedería, sustituyendo al edificio a derribar, y ocupando su mismo emplazamiento.

2.3.- Licencia de obras.

Redactado el Proyecto Básico para la reforma, la Comunidad, en marzo de 2003, solicitó al Ayuntamiento de Hernani la correspondiente autorización de obras.

Al estar calificado el Monasterio como Bien Cultural con la categoría de Monumento, la Corporación municipal, tal y como está establecido, remitió el proyecto a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación previa, que fue acordada en abril de este año 2003, con una condición, la obligación de presentar el proyecto arqueológico del solar, ya que el edificio monacal figura entre las zonas de presunción arqueológica del municipio.

Cumplimentado este requisito y una vez aprobado por Diputación el proyecto de excavación arqueológica a realizar en el entorno del Monasterio, correspondió al Ayuntamiento de Hernani conceder la licencia de obras solicitada, por acuerdo de su Comisión de Gobierno en mayo de 2003.

3.- Ejecución de las obras.

Una vez conocidos los resultados del Estudio Geológico-Geotécnico encargado por la Comunidad, y desarrollado el Proyecto de Ejecución para la reforma, así como redactado el preceptivo Programa de Control de Calidad y el Estudio de

Seguridad y Salud, por fin, después de cuatro largos años de gestiones, en enero de 2004, pudieron iniciarse las obras para la reforma y rehabilitación del Monasterio.

Los trabajos de desarrollaron en aplicación estricta del proyecto aprobado. Al desmonte manual y posterior derribo mecánico de los cuerpos a desaparecer, siguió el vaciado cuidadoso del cuerpo fundacional, con el acopio de los elementos estructurales de madera en buen estado, para su posterior aprovechamiento.

A partir de aquí comenzó la reconstrucción del citado cuerpo fundacional, restaurando en primer lugar los muros de carga, cerrando algunos vanos y abriendo otros nuevos, según las necesidades de la reforma. Asegurada la capacidad portante de los muros originales, se abordó el hormigonado de los suelos de planta baja, y, poco a poco, se fueron ejecutando los dos forjados de pisos y la cubierta, de madera, antigua o nueva según los casos, como estaba exigido.

A medida que iba cerrándose este cuerpo, fueron erigiéndose el nuevo cuerpo complementario del anterior y la nueva hospedería, en sustitución de los derribados, el primero de dos plantas, igual que el cuerpo fundacional, y el segundo de una sola planta; ambos con estructura de hormigón armado. Con ello la población expectante empezaba a entrever el alcance y las características de la acción reformadora.

La obra prosiguió según la lógica constructiva, sucediéndose los diferentes gremios intervinientes (albañiles, canteros, carpinteros, herreros, fontaneros, electricistas, pintores, etc.).

A pesar de su lejanía, la Comunidad estuvo informada en todo momento del desarrollo de los trabajos, y de cuantas incidencias sobrevinieron en el periodo de ejecución de las obras de reforma.

A medida que iban terminando las labores de reconstrucción, la Comunidad contrató asimismo el suministro del mobiliario mínimo necesario para poder ocupar el Monasterio y proseguir con normalidad la vida monacal.





Al mismo tiempo, en el exterior del Monasterio, se ejecutada la urbanización de la zona, y con ella la construcción del muro perimetral que delimita la nueva parcela claustral resultante de la ordenación urbanística.

Con las obras de reforma prácticamente terminadas, el 30 de noviembre de 2005, la Comunidad regresó a Hernani, y tomó posesión de su Monasterio reformado.

Poco a poco las monjas han ido completando y acondicionando los espacios interiores, y se ha zonificado el terreno libre, reservando una parte para el cultivo de huerta y árboles frutales, y el resto como jardín.

La inauguración oficial, que estuvo precedida por tres jornadas de conciertos musicales (coros, órgano y txistu, y acordeón) en la iglesia del Monasterio, se llevó a efecto el día 30 de abril de 2006, con una solemne eucaristía presidida por el Sr. Obispo de la Diócesis, y concelebrada por numerosos sacerdotes, y a la que asistió la Autoridad local, y multitud de fieles y amigos de las religiosas que abarrotaban el templo.







ADMISION AL NOVICIADO

Procedente de la Comunidad del Monasterio de Nuestra Señora de los Remedios de Artziniega (Araba), el 24 de abril de 2004, Sor Vigilia Cagang Judaya, a petición propia, fue admitida en nuestra Comunidad, ingresando como novicia para completar su formación con el segundo año de noviciado.

Pagoagako hiru anaiak. Hau da paotxa, hau!





Esta es muy resumidamente la evolución, al menos desde un punto de vista formal, experimentada por esta centenaria empresa hernaniarra. Algo más complicado resulta el análisis de la evolución experimentada de sus distintas infraestructuras productivas. La necesidad por atender mejor a la demanda del mercado ha favorecido una constante renovación de buena parte de las instalaciones,



hasta el punto de que en la actualidad no resta elemento alguno de la primitiva fábrica.


Desconocemos las características de la fábrica y de sus instalaciones productivas durante las dos primeras décadas de existencia. El único dato del que disponemos es una breve descripción del año 1916 donde se señala que la fábrica *"contiene en su interior el horno para la cocción de ladrillo... en el que no existen más edificaciones que la chimenea de la fábrica"*. La adquisición de la fábrica por parte de Aristegui y Achalandabaso supondrá globalmente un revulsivo muy importante a resultas del cual la presente fábrica se convertirá durante el período que precederá a la Guerra Civil (1936-1939) en una de las más importantes del sector cerámico en todo el territorio. Ya en 1923 disponía de al menos dos hornos en funcionamiento, a los cuales se les unirá en ese año un tercero de unas características idénticas a los ya existentes[12], y dos años después se procederá también a instalar una nueva subestación eléctrica dentro de las instalaciones, muy próxima al garaje de la Papelera, a través de la electricidad que se obtenía de un salto que la empresa disponía en el río Oiartzun, y más concretamente en Panadegi[13].

Pero el año clave de este proceso de renovación es 1929, en este momento se producirá una importante renovación de la fábrica con el derribo de parte de las antiguas instalaciones productivas y su sustitución por otras nuevas y más modernas. El nuevo edificio diseñado presentará una traza racionalista obra de los ingenieros Pedro Gaitan de Ayala y Antonio Bizcarrondo. Este se situará frente al actual pabellón de almacenamiento, con una estructura de hormigón armado, cierre de ladrillo y



Proyecto de construcción de un horno junto a la línea de ferrocarril en agosto de 1923 (Planos: Hernaniko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Hernani. HUA / Historikoa // D-4-4/1,24)

[12] Hernaniko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Hernani (HUA / Historikoa // D-4-4-1,24).
[13] Idem. (HUA / Historikoa // D-4-4-1,26).



Proyecto de ampliación de la fábrica redactado por los ingenieros P. Gaitan de Ayala y A. Bizcarrondo en mayo de 1929 (Plano: Hernaniko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Hernani. HUA / AMH // 327/24)

cubierta plana disponiendo de amplios ventanales corridos en sus diferentes fachadas que en la actualidad se encuentran totalmente cegados. En su interior se habilitarán los tres nuevos hornos circulares de fundición con una capacidad de unos 200 m^3, a los cuales posteriormente se unirá un cuarto, así como otros cuatro nuevos molinos con ruedas verticales destinados al desmenuzado del material. Para garantizar el tiro necesario se construirán asimismo un par de chimeneas ejecutadas completamente en ladrillo. Estos hornos y el nuevo pabellón marcaron la evolución productiva de la empresa durante casi medio siglo siendo conocidos como "la fábrica vieja", y cesando definitivamente en su labor a principios de la década de los setenta cuando fueron sustituidos por los actuales hornos-túnel de cocción continua[14].

Las décadas que suceden a la Guerra Civil y la posterior posguerra marcan un periodo sin grandes cambios dentro de la evolución productiva de la fábrica, o no al menos de gran relevancia. Será a partir de la década de los cincuenta cuando el cambio de coyuntura económica permita un nuevo desarrollo de las actividades industriales. Así, ya en el año 1954 en una parcela de terreno situada junto a la hoy desaparecida Papelera Mendia se procederá a ejecutar un nuevo pabellón con estructura de hormigón armado, cierre de ladrillo y que estaba dotado de grandes ventanales verticales. En este edificio se dispondrán en la planta baja los dos nuevos hornos periódicos de llama invertida y encima de ellos los secaderos y el área destinada al moldeo manual, mientras la zona derecha del mismo se destinará a la maquinaria y las instalaciones eléctricas (transformadores, tableros de control etc.)[15]. Este pabellón será dos años después ampliado en la zona de su entrada, junto a la carretera, para habilitar el espacio necesario para la nueva prensa de ladrillos así como otras maquinarias (trituradoras, mezcladoras, tolvas, cintas transportadoras etc.). Con ellos se procederá a edificar una nueva chimenea ejecutada totalmente en ladrillo refractario y con una altura final de 65 metros, complementando de este modo a las otras tres chimeneas ya existentes pero de mucha menor altura. Esta gran chimenea presidirá la fábrica durante el siguiente cuarto de siglo y será la de mayores proporciones de la zona.

A finales de esta década, en 1959, se adquirirá otra pequeña parcela perteneciente a la extinta empresa harinera Remy con una superficie de unos 2.725 m^2 donde se encontraba un edificio destinado a escuelas de parvularios y su patio[16]. En esa parcela se pretendían realizar diferentes obras

---

[14] Idem. (HUA / Historikoa // D-4-6-2,41); Idem. (HUA / AMH // 327/24). [15] Idem. (HUA / AMH // 3.281/17. *"Proyecto de construcción de un edificio industrial y una chimenea en el barrio de La Florida"*). Idem. (HUA / AMH // 3.284/22).
En ese mismo emplazamiento ya se había pretendido levantar tres años antes otro pabellón de características muy similares, si bien el proyecto no fue llevado finalmente a cabo. Idem. (HUA / AMH // 3.496/4. *"Proyecto de nuevo pabellón de moldeo para la Cerámica de Hernani C.H.A.I.V.A."*, redactado por el ingeniero Manuel Martínez Iturralde).
[16] La relación entre los propietarios de la fábrica y las autoridades escolares pasó en algunos momentos por períodos de tensión y agria polémica. La fábrica fue cercenando paulatinamente el terreno de la escuela hasta quedar finalmente totalmente rodeada por terrenos de ésta. No llevándose finalmente a cabo el traslado a sus actuales instalaciones hasta el año 1973, y cuyo coste fue asumido por la empresa.


necesarias para la ampliación de las instalaciones productivas pero las mismas se fueron paulatinamente retrasando y no culminarán definitivamente hasta casi quince años después. Sobre parte de esa parcela se procedió a construir un nuevo pabellón corrido con estructura metálica y cubierta de uralita que ocupaba buena parte de la zona trasera de la empresa, junto a la vía del ferrocarril, tras el derribo de una serie de almacenes que se encontraban en un deficiente estado. Este pabellón inicialmente debería de haber contado con una extensión de 180 m. de largo y 19 de ancho, si bien los problemas para abastecerse de materias primas y las dificultades económicas del momento hicieron que solamente se ejecutase la mitad de la superficie planeada[17]. El tramo restante no fue levantado hasta varios años después, en 1969, como una prolongación del anterior y con un desarrollo longitudinal de otros casi 60 m. Como el anterior su espacio estará dedicado a almacenaje de productos terminados y de materias primas que en ese momento se tenían que depositar a la intemperie en una parcela situada frente a la fábrica.

La empresa disponía además frente a las instalaciones principales, entre la antigua carretera general y el trazado del tranvía a San Sebastián, de una pequeña parcela totalmente cercada que había sido adquirida en 1918 y donde estaba habilitado un pequeño garaje, mientras el resto solía emplearse fundamentalmente para el almacenaje de las materias primas necesarias para elaborar sus productos. En ese espacio en el año 1961 se procedió a levantar un primer pabellón para almacenaje

Vista de una de las fachadas de la fábrica desde las vías del tren en torno a 1962. *(Fotografía: Kutxa Fototeca 1667-64-4).*



Imagen de los hornos circulares en 1962, hoy ya desaparecidos. *(Fotografía: Kutxa Fototeca. 1101-63-4).*



Detalle de las plantas mezcladoras en 1962. *(Fotografía: Kutxa Fototeca. 1101-61-2).*




Imagen de la sección de moldeo a mano en el año 1962. *(Fotografía: Kutxa Fototeca. 1101-63-2).*



[17] Idem. (HUA / AMH // 3.288/4).

de productos de unos 650 m² ejecutado con un andamiaje tubular metálico y cubierta de uralita con un carácter provisional, pero que será ampliado en 1965 añadiéndole otros 623 m² [18]. La construcción se hizo en precario, con el objeto de desmontarla tan pronto como fuese necesario, si bien este pabellón permaneció en pie hasta el año 1988 cuando fue sustituido por el actual pabellón, en cumplimiento fundamentalmente de una serie de medidas correctoras con el fin de reducir el impacto de la industria sobre su entorno más inmediato[19].

El año 1970 fue otra de las fechas clave en el proceso evolutivo de las actividades productivas de la empresa AMR Refractarios. En ese año se procederá a llevar a cabo la construcción de un nuevo pabellón entre los edificios de las oficinas y el taller mecánico y el pabellón de productos terminados. En este edificio se habilitará el nuevo horno-túnel de cocción continua, al que posteriormente se le unirán otros dos más y que suponían un incremento considerable de la producción frente a los tradicionales hornos periódicos de llama invertida.

El edificio ocupaba una superficie de unos 800 m² y estaba ejecutado mediante una estructura metálica que se apoyaba parcialmente sobre edificaciones anteriores[20]. Con su puesta en marcha se cerraba una etapa productiva iniciada medio siglo atrás y conllevaba la forzada jubilación de los hornos periódicos construidos en torno a 1929.

A lo largo de los próximos años se procederá asimismo a la remoción y construcción en nueva planta de nuevos edificios, dentro del proceso de

Imagen de la fachada principal de la fábrica en el año 1967. *(Fotografía: HUA / AMH // 3.320/31).*



Vista de la fábrica en el año 1966. *(Fotografía: Kutxa Fototeca. 1170-01-1).*



[18] Idem. (HUA / AMH // 3.291/10); Idem. (HUA / AMH // 3.309/3. *"Proyecto de construcción de un pabellón desmontable en el barrio de La Florida nº 69"*).
[19] Idem. (HUA / AMH // 3.581/3).
[20] Idem. (HUA / AMH // 3.436/4).

renovación global de las actividades productivas de la empresa: en 1978 se ejecutará el nuevo edificio para el taller mecánico; en 1980 le tocará el turno al edificio de las tolvas metálicas; la ejecución del puente-cinta entre la zona de almacenaje y la de producción por encima de la carretera en 1989 etc.

En 1981 los propietarios de la empresa procederán efectuar la última ampliación con la adquisición de una nueva parcela de terreno anexa a la fábrica de unos 2.500 m² perteneciente a la ya extinta Papelera Mendia (posteriormente Papelera del Norte) con el fin de llevar a cabo una nueva ampliación de las instalaciones. La parcela se encontraba ocupada por la conocida como Casa Verde, un pequeño chalet de construcción reciente. A pesar de la adquisición sobre este terreno no se llevó a cabo edificación alguna hasta el año 1993. Allí se llevará a cabo la última gran obra relacionada con esta fábrica, con la ejecución de un nuevo pabellón destinado a alimentar a la sección de trituración e instalación de nuevas prensas[21].

De esta manera concluye un largo y a veces complicado proceso de continuas reformas y mejoras operadas por los propietarios de la empresa AMR Refractarios, S.A. La primitiva fábrica de escasamente 1.760 m², allá por 1906, se ha convertido en la actualidad en un espacio de más de 14.000 m², donde trabajan unos 90 empleados, mayormente hernaniarras. Una empresa que, polémicas aparte, se ha empeñado en todo momento en ser competitiva y estar adecuada a las necesidades del mercado, suponiendo uno de los de los pilares sobre los que se ha ido desarrollando la vida económica de la población.

En la actualidad la empresa AMR Refractarios se dedica a la producción de refractarios de alta tecnología para la industria siderúrgica, industria del cemento, ferroaleaciones etc., exportando más del 40% de sus productos a diferentes países del mundo.





[21] Idem. (HUA / AMH // 3.609/2).



El centenario de esta empresa adquiere un valor añadido en un momento como el actual de globalización, traslados de empresas etc., cuando el grupo japonés Krosaki-Harima Co., propietario del 100 % del capital de AMR y uno de los tres primeros fabricantes refractarios de todo el mundo, ha decidido y firmado con el Ayuntamiento de Hernani y Etorlur un acuerdo para mantener la producción en la población que la vio nacer y desarrollarse, trasladándola a un terreno próximo al actual y construyendo una nueva planta con las tecnologías más avanzadas. Actuación con la que deseamos que pueda continuar cumpliendo efemérides como la presente y creando bienestar a las personas de Hernani y su entorno.

Reunión de antiguos y actuales trabajadores de AMR celebrada en el restaurante Fagollaga con motivo de la celebración del Centenario *(Fotografía: AMR Refractarios S.A.).*

Bertso Eskolak 25 urte



Argazkia: Hernaniko kronika.

2006ko apirilaren 29an Hernaniko Bertso Eskolak 25. urteurrena ospatu zuen, bertatik pasatako belaunaldiak Larre Gain sagardotegiko bazkarian batuz. 70 lagun inguru elkartu ziren, eta belaunaldi berrieneko Asier Azpiroz "Azpi"k horrela definitu zuen han sentitutakoa: "gu iritsi baino lehen jende askok lan egin duela, eta harrituta geratu nintzen, bertan ibilitakoak zirela ez nekien jende asko ezagutzen bainuen". Bazkari horretako helduenak ziren Aterpe eta Garin bertsolariei, berriz, kontrakoa gertatu zitzaien: "Batek eta besteak kasu egin, eta guk ez ezagutzen zein diren!". Bazkalostean bertso saioa osatu zuten denen artean: belaunaldi bakoitzeko bizpairu bertsolarik euren garaiaz kantatu zuten. Beñat Gaztelumendi gaztearentzat: "sekula kantatu dudan plazarik zailena izan zen", aurrean entzuten hainbeste bertsolari egonda. Baina zaharrenek ez zuten saioa Larre Gainen bukatu: Zikuñagako Txintxua Hotelean geratu ziren Arrieta, Kanpozabal, Gregorio, Olazar, Garin eta Anatx, eta han ere izan zen ziri errimaturik.

Nola elkartu ditu bertso eskolak hainbeste belaunaldi eta pertsona? Argazkiko helduenek eutsi zioten gerra ostean Hernaniko bertsozaletasunari, eta gaurko argazkia 1981eko Amurizaren ikastaroak bota zuen flasharen ondorio da...

GERRAOSTEA: ETXEAN TRANSMITITU ZEN BERTSOZALETASUNA

Ereñotzu auzoko Latxe baserrian jaio zen 1860an Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" bertsolari handia.



Jose Manuel Lujanbio "Txirrita", 1860-1936. *(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).*

1936an hil zen, gerra hastear zela, bertsolarien txapela jantzita, eta Hernanik geroztik ikur duen jenioa galdu zuen.

Franco garaian abertzaletasunak, euskarak eta bertsoak kontu handiz agertu behar izaten zuten jen-



Paulo Zubiarrain "Hernani Txikia", Uztapideren ondoan. *(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).*

daurrean. Antton Garin bertsolariak gogoratzen du nola "beti bi Guardia Zibil egoten ziren bertso saioak entzuten, ezer ulertzen ez bazuten ere". 1945 urte inguruan Paulo Zubiarrain, "Hernani Txikia" zen Hernaniko bertsolari ia bakarra, baina ez nolanahikoa, Txirritarekin umetan kantatutakoa eta Uztapiderekin eta gainerako bertsolari handiekin makina bat saio egindakoa baitzen. Hernaniko Fernando Iturraldek laguntzen zion herriko festetako saioetan, baina gainerako bertsolariak beti kanpokoak izaten ziren, herrikoen faltan.

Bertsolaritzak herritarren oroimenean sendo iraun zuen urte hauetan. Julian Ezeiza "Aterpe" bertsolaria da memori aberatseko belaunaldi horren ereduetako bat. Berak kontatzen duenez, "Santa Jenobebarenak izan ziren buruz ikasi nituen lehenengoak, 9-10 urterekin. 1.000 bertso inguru ikasiko nituen buruz nire bizitzan, gehienak liburuetatik". Hernanin bertsolaritza sustatzen lan handia egindako Juanjo Uriak ere, Txirrita ia bertatik bertara bezala bizi izan zuela kontatzen du, bere aitona Juan Joxe Zubiarrainek haren bertso eta istorio denak erakutsi baitzizkion "Gure aitonak bertsotan ez zuen apenas egiten, ez zen bapatean ausartzen. Baina oso kontalari ona zen, eta Txirritaren bizitza ikaragarri ondo ezagutzen zuen, hargina zelako, haren laguna eta lanean leku askotan egokitutakoa. Paulo Ttikiaren lagun handia ere bazen". Juan Joxe Zubiarrain Txirritarekin bizi izandakoa izaki, Antonio Zabalak Txirritari buruz ateratako liburuari ere zuzenketak egiten omen zizkion. Uriak liburua erosi eta aitonari kantatzen zionean, hark: "Ez, bertso hori ez dago ondo, Txirritak kantatzen zuen nik esaten dudan bezala!". Aterpek ere, bere aitaginarreba zuen Juan Joxe Zubiarraini behin baino gehiagotan entzun omen zion Txirritaren filosofia "lan asko ez dek earra, eta gutxi're ez dek-ba earra, hobena batez!". Bertsolari handiaren bertso eta istorio horretatik piztu zitzaion Uriari bertsozaletasuna: "asko gustatzen zitzaidan Txirritak zer gauza esaten zituen, haren kutsu politikoko bertso batzuk entzun, eta kontrakoak, zirikakoak entzun, eta harrituta geratzen nintzen, nola zen posible hain lerro gutxitan hainbeste gauza esatea". Antton Garin bertsolariak ere etxetik jaso zuen bertsotarako "bedeinkapena": bere aitonak egiten zuen bertsotan, eta aitonaren aitak, berriz, ikaragarri: Olegario Garin berbera zen, Pello Errotarekin eta Txirritarekin aritutakoa.

FRANCO HIL ZEN, ETA SAIOAK BERPIZTU

Santa Agedako errondak Hernaniko bertsozaletasuna mugiarazteko garrantzi handia izan zuen garai hartan: Tturko eta Mikel Arozamena aritzen ziren bertsotan errondan eta ondoren Euxebio Igartzabal, Gabirikoa, aritu zen, 7 urte baino gehiagoz. Antton Garinek aitortzen duenez, "lan handia egin zuen Igartzabalek. Aterpek eta biok haren ondoan kopla kantatzen genuen, eta bertsoa berak". Pixkanaka herriko biek mikroari beldurra galdu zioten eta bertso osoak kantatzen hasi ziren. Hala, handik urte batzutara Igartzabalek txanda ematea erabaki zuen, "Hernaniko lanak egiteko biak nahiko zirela eta". Garinek argi du bertsolaria kalera ateratzea zein garrantzizkoa den: "Mikrofonoari beldurra galdu behar zaio, eta gainera kaleak asko irekitzen du pertsona". 1975-76an hasi ziren Aterpe eta Garin Santa Agedako errondan, eta Aterpe 1992 arte ibili zen, 17 urtez beraz. Oso oroimen ona du: "Zinkoenean urte osoan izaten zuten ardorik onena orduan ateratzen ziguten".

Urteko beste zita jakinak Hernaniko ia auzo denetan egiten ziren festak ziren, eta euskal kutsua emateko herri kiroletan eta bertsotan arituko zen koadrila elkartu zen: Aizkoran Larrabide eta Arkaizpe, harrijasotzen Kinito eta Pakito, bertsotan Argiñarena, Joxe Anjel Tapia, Xanxanategi, Otsua, Aterpe eta Garin... Joxe Mari Arrieta aritzen zen hauei gaiak



1979an, Hernaniko lehen txapelketa Elurtxori elkartean. Antton Garin, Julian Aterpe, Xanxanategi, Tapia eta Marraka aritu ziren kantuan, Joxe Fermin Argiñarena gai-jartzen eta Joxemiel Argiñarena, Juanjo Uria, Iñaki Aranzadi eta Bixente Zubiria epaile. *(Argazkia: Antton Garin).*

jartzen, normalean. "Festetako eguerdia guk betetzen genuen" gogoratzen du Garinek. Herriko festa denak pasatzen zituzten: Santa Barbarako San Inaziotan 1978an kantatu zuten lehen aldiz Aterpek eta Garinek, Antziola, Portu, Karabelen behin ere bai, Florida, Elkano, Zikuñaga... Joxe Mari Mujika "Anatx" gaztea ere 17-18 urterekin gehitu zitzaion aurreko belaunaldiari erronda eta festetan. Ereñotzun eta Txintxuanean, aldiz, bertsolari onenak izaten ziren: Lazkao Txiki eta Manuel Lasarte... Baina Aterpek kontatzen duenez, "Guk ere noizbehinka kantatzen genuen zerbait haiekin. Joxe Mari Arrietaren ezkontzan, esaterako, Joxe Agirre eta Manuel Lasarterekin kantatu genuen". Juanjo Uriak ere, orain Hernaniko saioetan herriko zenbat bertsolarik kantatzen duten ikusita, orduko egoera erabat desberdina zela gogorarazten du: "Pentsatzen genuen Hernanin bertso saioak egiteko beti kanpoko bertsolariekin aritu beharko genuela. Aterpek eta Garinek bete zuten ondorengo belaunaldia etorri arteko hutsunea".

Hernaniko 2 txapelketa ere egin ziren, bertsozaletasuna mugitzeko. 1979ko azaroaren 3an jokatu zen lehena, Elurtxori elkartean. Antton Garin, Julian Aterpe, Xanxanategi, Tapia, Marraka ("berezkoa handia zuen, eta oso ahots ona", Aterperen hitzetan) aritu ziren kantuan, Joxe Fermin Argiñarena gai jartzen eta Joxemiel Argiñarena, Juanjo Uria, Iñaki Aranzadi apaiza eta Bixente Zubiria epaile. Aterpe izan zen Hernaniko lehen txapelduna. Bigarren txapelketa, berriz, 1980an jokatu zen Peña Otaño elkartean, eta Argiñarenak irabazi zuen. Urte berean, Usurbilen kontrako desafioa jokatu zuen Hernanik. Galarretan izan zen saioa, eta 1.000tik gora entzulek frontoia bete zuten. Gai-jartzen Joxe Mari Iriondo aritu zen eta Hernani defendatzen: Aterpe, Olano, Garin, Tapia eta Argiñarena bertsolariak. Usurbilen izenean Antton Aranburu, Lertxundi, Aiaola, Pana eta Oiloki aritu ziren eta Usurbilek irabazi zuen.

Hortik kanpo, Zinkoenea zen bertsozaleen elkargune garrantzitsuena. Aterpek famatzen duenez: "Zinkoenea tabernako Inazio aitonak berak ere, poliki egiten zuen bertsotan". Garinek gogoan du nola "Zinkoene tabernako balkoitik balkoira aritzen zen Azpeiti deitzen zitzaion bertsolari bat, lehen pisuan bizitzen zena, eta Carrocerias Hernani gaineko terrazatik besteak erantzuten zion". Garai hartako bertso giroa tabernari eta festari lotua zegoela berresten du Anatx bertsolariak ere: "15-16 urte nituen nik eta tabernan bertsotan hasi eta meriendatuz, jende asko izaten zen entzuten atzetik. Ostegunetan Xamalbide etortzen zen azokara eta Zinkoenean eta Juxton aritzen ginen bertsotan. Baita ere Azurmendin, Egañanean, Amerikanuaenean... Noiznahi aritzen ginen, iluntzetan, lanetik etorrita. Astebukaeretan leku askotatik etortzen zen jendea: Oiartzungo Xalbador Tapia, Lasarteren semea...". Garinek ere ez ditu ahazteko ibilera haiek: "Tturkok tabernan harrapatzen bazintuen gaueko 23:00etan, 2:00ak arte bertsotan aritu beharra zegoen!".

Baina, bertsoa taberna girotik prentsara eraman zuen Basarri bertsolari eta kazetariari ere bidaltzen zioten hernaniarrek bertso jarririk, *Diario Vasco* egunkariko "Nere bordatxotik" atalean atera zezan: Aterpek gogoan du nola Usurbilgo Panak, Joxe Mari Arrietak eta hirurek bertso paperak idatzi zituzten, elkarri erantzunez. Egunkari berean, Aterpek Hernaniko jende askori buruz ere jarri zituen sailak: Don Eusebiori, Uztargileari, Agirretxe fraileari, Eltzekondori...



2005eko Bertso Latan, Julian Aterpe eta Antton Garin omendu ziren, urtetan herriko bertsolari egindako lanagatik. *(Argazkia: Hernaniko kronika).*

1981, AMURIZAREN IKASTAROA: BERTSO MUGIMENDUAREN SORRERA

1981ean, Juanjo Uria Hernaniko alkate zela, udalak Xabier Amurizaren ikastaroa antolatu zuen. Ikastaro hura izango zen bertso eskolaren oinarria. Ez Hernanin bakarrik, Euskal Herri osoan ere garai horretan sortu ziren lehen bertso eskolak, besteak beste Amurizaren hitzaldien ondorioz.

Frankismo osteko lehen urte haiek ziren eta ez zegoen egiturarik ezertarako. Uriak gogoratzen duenez: "Kezkatuta zegoen jendeak zerbait egin nahi zuen euskara, bertso, kultura esparruan... Mugimendu horren guztiaren atal bat izan zen bertsoarena. Egin beharra zegoen zerbait, kultur eta politika mailako kezkak zeudelako. Ikastaroan ikusi zen herriko jendeak zuen nahia bat eta ilusio hori".

Amurizak 1981eko azaroaren 11n eman zuela lehen klasea ondo gogoan du Anatxek: "erreziboa ere jasoa nuen, 2.000 pezetakoa". Amurizak klasea astero eman zuen, bi hilabetez. Bildutako jende kopuruaz galdetuta oso zifra diferenteak jaso ditugu, baina denek gogoratzen dute Udaletxeko goiko aretoa gainezka. Oso maila, edade eta mota desberdineko jendea bildu zen, eta herrikoak ez zirenak ere bai.

Bitxia da nola ikastaro hartan egondako edonori galdetu, eta oso garbi dituzten gogoan maisu haren azalpenak, ia hitzez-hitz. Amurizak ikastaro horretan azaldu zuen teoriak bertsolaritza irauli

zuen. Izan ere, berak bertsotan egiten ikasi daitekeela defendatu zuen, eta ordura arte barneratuta zegoen ustea zen bertsolariak berezkoa zuela bertsotan egiteko gaitasuna Amurizak oso ondo esaten zuen: "jaio egin behar dela? Gu jaio gaituk, bentaja hori bazeukeagu!". Bertsoa zer den horrela azaldu omen zuen, Uriak gogoratzen duenez: "Arau batzuk ditu eta horiek bete behar dira ahalik ondoen. Arauak betez esan daitezke oso zentzu gutxi duten gauzak, eta zentzu handia dutenak. Zentzu gutxi dutenak esatea errazagoa izan liteke, baina hala eginda ere jada osatu duzu bertsoa. Noski, hurrengo pausoa izan behar du zentzu handia dutenak osatzea".

Ez pentsa ikastaro bakarrean bere teoriaz komentzitu zituenik. "Bertso eskola martxan hasita ere, bertsotan ikasi ote zitekeenaz jende askok duda handiak izan genituen urte askotan", aitortzen du Uriak berak.

Teoria mailan bakarrik ez, ordurako bertsotan egiten zutenentzat ere erabakiorra izan zen Amurizaren ikastaroa: Anatx, esaterako, Gay Mur eskolan aritu zen ikasten, eta Xabier Agirre maisuak lagunduta, jendaurreko lehen bertsoak han kantatu zizkion jubilatutako maestrari. Bere kasa jardunda ikasi zuen bertsotan, baina beretzat ere Amurizaren ikastaroa erabakiorra izan zen: "Amurizak lotsa galtzeko sistema ekarri zuen: bota arrazoia, esaten zigun. Ez zuen errimak eta neurriak justua beharko, baina kantatuz eta erantzunaz aritu behar zen". Aterpek ere aitortzen duenez: "Bertsotarako bidea Amurizak jarri zigun. Amurizak asko erakutsi zuen, bukaerak nola prestatu, eta bertsoaren mamia izaten zela erdiko zatia ez edozer gauzarekin eta zaborrarekin betetzea, baizik gauza justuarekin". Garinek garbi du zertan lagundu zien lehendik aritzen ziren bertsolariei Amurizak: "Guk berez, konturatu gabe egiten genuena, berak azaldu egiten zuen nola eta zergatik".

Ikastaroa izan zen txispa bertsotarako giroa eta mugimendua pizteko. Horrela, Amurizaren ikastarotik etorri ziren gaur egun oraindik Hernaniko bertsolaritzaren bi zutabeak direnak: ikastoletan eta eskoletan ematen ziren bertso klaseak, eta gazteek euren kasa bilduz Udaletxean egiten zituzten asteartetako bilera edo saioak. Gaur herriko bertso eskola dago, ez ikastetxe bakoitzeko eskola bat. Eta asteartetako bilerak ere oraindik bizi-bizirik dirau, *Iraulio Panttalone* izenarekin.

Umeei bertsotan irakatsi, eta behin ikasi dutenean jarduteko eta antolatzeko talde bat izatea formula eraginkorra dela ikusi da Hernanin. Bertso eskola falta balitz, belaunaldi berrien falta sumatuko genuke, eta *Iraulio Panttalone* gabe bertsotan egiten duten askok ez lukete jarraitzeko motibaziorik izango, inguruan koadrilarik eta girorik ez balute. Zeresanik ez, bertso eskolaren eta *Iraulio Panttalone* taldearen arteko zubia ondo lotzea ezinbestekoa da, bertsolaritzaren transmisio zikloa betetzeko.

1982-GAUR ARTE. ASTEARTETAKO BILERA

Amurizaren ikastaroan bildu ziren gazteetako batzuek, ondoren ere biltzen jarraitu zuten. Udaletxean elkartzen ziren, eta goiko geletako batean sartuta aritzen ziren: Anatx, Iñaki Aranzadi apaiza, Usurbilgo Juan Mari Etxabeguren eta Nikolas eta Joxemari Izeta, Pablo Joxe Aristorena, Jon Eizmendi, Aterpe eta Antton Garin, Otaño... Mahaiaren bueltan jarrita, txanda etortzean kantatzea zen hango legea "baina txanda pasa eta bi aldiz segidan kantatzea ere maiz izaten ziren" kontatzen du Anatxek. Batere gairik gabe, librean aritzen ziren, eta gaiekin sariketa eta txapelketa boladan bakarrik aritzen ziren, entrenatzeko.

Denborarekin, taldea gutxituz joan zen eta bolada handia egin zuten Aristorenak eta Anatxek bakarrik bilduz. Anatxen hitzetan, "Askotan egin ditugu 3 orduko saioak, nazkatu arte. "Jendea etorriko dek, hasiko dek jendea bai, eta ez diagu galdu behar" pentsatuta eusten genion asteartetoko martxari". Eta etorri ziren, bai, belaunaldi berriak asteartetako bileretara. Jokin Sorozabal eta Oiartzabal hasieran eta geroago, 1991 aldera Manu Gomez, eta gaztetxoak ziren Iñaki Zelaia, Joxe Luis Urdangarin, Unai Agirre, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Juanjo Usarraga, Maialen Lujanbio, Laxa... Jende asko pasa da bilera horietatik, Koldo Aldalur eta Pello Zubiria ere bai, esaterako.

Joxe Luis Urdangarinek ederki gogoratzen ditu mahaiaren bueltan eseri eta txanda iristean kantatu beharrak gaztetxoei ekartzen zizkien hestuasunak: "Ez zen azalpenik ematen, eta denak begira zenituenez, edozer gauza baina bota egin behar zen. Gu ohituta geunden ikastolako perfekzionismoarekin, eta iruditzen zitzaigun ez baziren 7-6 silabak ondo neurtzen eta errima asko hestutzen ez zela bertsoa; eta hor ikusten genuen bertsotan egitea ez zela hori. Hestuasun handiena zera izaten zen: 5-7 lagun izanik denbora izaten genuen bertsoa pentsatzeko, baina zure txanda iristerako gaia aldatu egiten zen, eta erabat desentonatzen zuen zure bertsoak". Saio ostean beti tabernara joaten zirela ere gogoan du Urdangarinek: "helduei ardoa eta gaztetxoei mostoa aterata, etxera joaten ginen". Noizean behin enbidoak ere izaten omen ziren "Sagardotegira joango al gara?", eta momentuan erabakitzen zuten, ez ziren bi aste lehenago planifikatutako afariak izaten.

Udaletxeko saio horien artean bat bereziki du gogoan: balkoitik Joseba Tapiak trikitixa jo eta besteek "Egun da Santi Mamina" doinuan plaza osorako kantatu zutenekoa.

Lehenengo belaunaldiak (Anatx, Aristorena, Sorozabal...) utzi eta belaunaldi berriak (Urdangarin, Zelaia, Irazu, Agirre, Mendiluze...) eutsi zion asteartetako bilerari. Belaunaldi hau bertso eskolatik pasatakoa zen, lehendik ere elkar ezagutzen zuten, eta talde bezala funtzionatzen hasi ziren, bertsotarako

Asteartetako bilera, Biteri kultur etxean bildu zen batean. *(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).*





Gaur egun ere erronda da Hernaniko bertsolari berrien lehenengoetako plaza. Ondoko irudian, Iraulio Panttaloneren antzerkia, Bertso Lata batean. *(Argazkia: Hernaniko kronika).*



ez ezik, beste plan batzuk egiteko ere elkartuz. Horrela, 1991n taldeari izena jarri zioten. Tiloseta-ko frontoi atzean, pilotako lokala zen hartan egiten zituzten afariak Gipuzkoako Txapelketa prestatze-ko. Afari horietako baten ostean sortu zen *Iraulio Panttalone* izena. Eta baita bere imno edo kopla ere:

Iraulio Panttalone
hori da izena, ene!
Gure ondoan dabiltzan danak
ibil daitezela erne

Udaleko Euskara Batzordearen ekimenez eta *Iraulio Panttalonek* antolatuta, Errege Eguneko lehen bertso saioa egin zen 1992an: Anatx, Lazkao Txiki, Jon Lopategi, Jon Sarasua, Iñaki Murua eta Joxe Luis Urdangarin aritu ziren. Ordura arte Hernanin ez zen festaz kanpoko saiorik eta geroz-tik saio hori urtero egin izan da. Gainera, 1995etik gaur arte saio horren inguruan bertso aste bat, *Bertso Lata* osatu da. Horrez gain, *Iraulio Panttalo-ne* koadrila, "bertso kabiya" edo taldeak hainbat modu aurkitu ditu kalea aztoratzeko: Hernaniko Txapelketa, sagardotegitan saioak, bertso antzer-kiak eta bertso musikatuak, helduentzako bertso eskola...

Bertsotan bizitzeko aukera eskaintzen du *Iraulio Panttalonek*. Bertso eskolatik ateratzen diren gaz-teen biltzeko gunea da. Jada irakaslerik gabe, elkarrengandik ikasteko. Peña Otaño, Ur-Mia eta Aranoko San Roke elkarteetan biltzen dira urte osoan. Elkartetan gustura afaldu eta nahi adina kantatzen dute. Besterik gabe gozatzeko biltzen dira, momentua disfrutatzea baino hurrunagoko helbururik gabe. Horrela, bertsoa bizitza osoan

lantzen dute, bertsoa astean behingo klase izatetik, afizio izatera pasatzen da.

1983-1988. IKASTOLA ETA ESKOLETAKO BERTSO ESKOLAK

Ikusi dugu Amurizaren ikastarotik nola sortu zen asteartetako bilera, egungo *Iraulio Panttalone* bertso kabiya. Amurizaren ikastarotik atera zen beste zutabea, ikastoletan sortu ziren bertso eskolak, ezagutuko ditugu jarraian. Urumean, Langilen, Jauregin eta Ereñotzun hasi ziren bertsolaritza lantzen, eta garai hartan oso garrantzitsua izan zen irakasle eta gurasoen lana ere.

Urumea ikastola. Urumean Maritxu Mariezkurrena zuzendariak ahalegin berezia egin zuen bertsolaritza lantzeko. Joxemari Gabiria izan zen lehen irakaslea eta lehen ikasleak Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendi, besteak beste. 4. eta 5. mailan hasten ziren Gabiriarekin bertsolaritza lantzen: bertso zaharrak kantatzen eta puntuka jartzen zituen ikasleak, beste inolako azalpenik eman gabe. Ikasle denen artean bahea pasa eta erraztasun gehiena zutenak eta euskara maila ona zutenak zirikatzen zituzten, 6., 7. eta 8. mailetan klasez kanpo egiten ziren bertso entrenamenduetara gonbidatuz: hauek asteazkenetan ikastolan geratzen ziren bazkaltzen, eta fideo zopa eta patata tortila jandakoan, Mikel Mendizabal bertsolaria etortzen zen talde honi klasea ematera. "Mikel Mendizabalek metodologia egituratuagoa ekartzen zuen, eta teknika lantzen genuen. Batez ere idatziz egiten genuen, oso maila desberdineko jendea biltzen ginelako" kontatzen du Joxe Luis Urdangarinek. Beranduago Manuel Beraza apaiza aritu zen klase osoari bertsolaritza ematen, euskara klasearen barruan. Bertsolaritzaren historiari eta doinuei ematen zien garrantzia handia, bertsotako kultura zabaltzeko. Don Manueli Gregorio Olasagastik hartu zion txanda. Urdangarinek kontatzen duenez, "Gregoriok asko lagundu zigun, beste ikastoletara eramaten gintuen kantatzera: gure lehen saioetakoa Adunako eskolan izan zen, bera hangoa zen-eta". Ikastetxez-ikastetxe kantuan aritzen ziren bertsolari gaztetxoak zirkuko animaliatxoak bezala aurkezten zituztela kontatzen du: "orain ikusiko duzue, lau hitz emango dizkiegu eta bertso bat kantatuko dute! esaten zieten ikasleei". Asteazken eguerditan biltzen ziren gazteek gero eta gehiago egiten zuten bertsotan eta aparteko laguntza behar zutela ikusita, 1986an Pablo Joxe Aristorena ikaslea jarri zuten gazteagoen irakasle Urumea ikastolan. Oarson biltzen ziren, ostiral arratsaldetan, baina klase osoa bapatean egiten zuten, lehen aldiz. Aristorenak utzi beharra izan zuenean, Jon Eizmendik hartu zuen bere lekua. Urdangarinek aitortzen duenez: "Urumea ikastolan horrelako bultzadarik izan ez bagenu, guk ez genuen bertsotan ikasiko. Guri erraztasun guztiak ematen zizkiguten".

Langile ikastola. Langile ikastolan, berriz, Juanjo Uria aritu zen irakasle, eta Anatx ere laguntzera joaten zitzaion: "Uriak bazekien umeak eramaten. Ez zen batere erraza, baziren elementu ederrak, Gorka Tolosa, adibidez, oso azkarra, geldi egon ezin duten horietakoa" dio Anatxek. Klasez kanpo ematen zuen Uriak bertsolaritza, ostiral arratsaldetan. Sorrerako urte hauetan Ixiar Otamendi, Ixiar Egiguren eta Eli Igartzabalen ekimena eta lana ere oso garrantzitsua izan zen, haurrei bertsolaritzarekiko zaletasuna bultzatzeko, bertso eskolan izena eman zezaten animatzeko... bertsolaritza klasera ere askotan joaten ziren irakasle hauek, arduratuta, jarraipena gertutik egiteko. 20-30 haur izaten ziren klase horietan, eta bigarren urtetik aurrera, idatzizko klase horren segidan, bapateko saioa egiteko 4-5 ikasle geratzen ziren, idazten erraztasuna lortu zutenak. Garai hartako ikasleak izan ziren, besteak beste, Unai Agirre eta Eñaut Agirre, Gorka Tolosa, Aitor Mendiluze, Iker Osa, Jon Iraola, Iratxe Apaolaza, Itziar Eizagirre...

Auzoak. Auzoetako eskoletan ere bertsolaritza lantzen hasi ziren 1983 inguruan: Jauregiko eskolan irakasle aritu zen Anatx. Ereñotzun, berriz, Juanjo Uria hasi zen, eta bigarren urtean Anatxek hartu zion erreleboa. Beranduago Urdangarin arituko zen, 91tik 93ra. Ondoren, Ereñotzun bertsolaritza sustatzen lan handia egindako Florian Oiarbide bertso jartzailea aritu zen auzoko bertsolari gazteak ateratzen eta 2000. urte inguruan hartu zioten erreleboa Ibon Miner eta Aritz Zerainek.

Lehen metodologia. Garai hartan ez zegoen bertsotan irakasteko metodologiarik teorizatuta, eta liburu, zinta eta gainerakoak oso urriak ziren. Juanjo Uriak bere kasa programatu behar izan zuen urte osoa, ordurako ikastoletan bertsolaritza lantzen hasi zen Mikel Mendizabal bertsolariaren orientabideekin. Hona klaseak nola antolatzen zituen: Hasiera beti bertso kantari egiten zuen, fotokopiatutako bertso zaharrak banatuta eta lehenik doinua ikasten jardunda. Ondoren bertsolaritzaren historiari buruzko azalpen batzuk ematen zituen, garai bakoitzean zein bertsolari izan ziren nagusi, bakoitzaren ezaugarriak, bertsorik ezagunenak... Ondoren bertsoak osatzeko ariketak egiten zituzten, xinpleenetatik hasita: errima zerrendak idatzi, kopla txikiak idatzi, kopla handixeagoak, bertso txikiak, gero handixeagoak... Anatxek kontatzen duenez, "Paperean bertsoak betetzea, errima zerrendak osatzea... Hori berria zen, lehen ez zegoen".

Egindako lanaren ordainetan, oso gustura zegoela gogoratzen du Uriak: "Ian bat egiten ari ginelako eta jendea astero-astero etortzen zelako. Baina, hemendik Lazkao txiki bat edo Uztapide bat ateratzea... Inork ez zuen espero eman dituen emaitzak ematerik". Baina lehen kurtsotik hartu zituen zorioneko ezuste txikiak: "konturatu nintzen haur batzuek bazutela erraztasuna bertsoak logika batekin idazteko". Poliki poliki joan zen konfirmatzen Amurizaren teoria. Bapateko taldea pausoak ematen hasi zenean, lehenik kopla osatzen eta gero bertso osoak kantatzera iritsi zirenean, jabetu zen

ARNANIKO UDAL

Uria: "hau posible da". Horrek eraman zuen klasea hobeto prestatzera, kanpoko materiala eskuratu eta klasera eramatera... "Urteekin ikusi da posible ez zena bentzutu dugula" dio Uriak egungo ikuspegitik "Baina betikoa: ikasi daiteke, baina berezkoa daukanak ikasi egiten badu, askoz gehiago egingo du. Nabaritzen da soilik ikasi duenaren eta berezkoa ere baduenaren arteko aldea".

Badatoz bertso eskolako lehen bertsolariak. Hernanin, besteak beste Anatx, Pablo Joxe Aristorena eta Jon Eizmendi izan ziren plazaratutako bertso eskolako lehen belaunaldia (nahiz eta Anatxek bere kasa ikasi zuen, bertso eskolarik jaso gabe). Anatxek jada eskolarteko lehen txapelketan, 1981ean, kantatu zuen. "Eskolarteko txapelketak antolatzen aritzen zen Mikel Mendizabal bertsolariak lan handia egin zuen gu plazara ateratzeko" gogoratzen du Anatxek. Handik aurrera plazan kantulagun izan zituen Aretxabaletako Almen bertso eskolatik ateratako Jon Sarasua eta Arantzazu Loidi, Azpeitiko Xabier Euskitze... Lehen saioa San Inaziotan Altzon egin zuela du gogoan Anatxek eta geroztik, Lizartzan, Oiartzunen... inguruko herrietan aritu zirela. Kartelak eta denak ateratzen zituzten saioa iragarriz, baina "maiz gure burua aurkeztu behar izaten genuen, bertsolariak ginela", gogoratzen du umorez: "Behin Usurbilgo Kalexarrera joan gara Euskitze, Sarasua, Izarzelaia, Loidi eta ni, orduan ere tripahandiena ni izango nintzen... esan dugu bertsolariak ginela eta ea jai komisioa non zen... 'Zuek bertsolariak? Aditu al duk, hi!' edadeko gizon batek besteari. 'Neska ere bai? Besterik ez dugu behar! Horrako tripa handi horrek bai, (Anatxengatik) akaso zeozer egingo du, baina...". Garai hartan 15 urteko gaztetxo bat bertsotan ikustea erabat harrigarria zen: "Bertsolariak izan behar zuen edadeko gizona, zapelarekin, mutur gorria. Neska ere bertsotan! Mutilkozkorrek egitea ere arraroa zen". Jolasean, zertan zebiltzan gehiegi jabetu gabe, ondo pasatzeagatik bakarrik aritzen zirela kontatzen du: "Plazan ere librean asko egiten genuen, ordu erdi askotan, biren artean".

Klasean ikasitakoa, kalera. Bertso eskolatik bertsolariak atera dira, baina bertso eskola bera ere sorreratik bertatik atera da kalera, ez da gelako lau ormen barruan geratzeko jaio. Hasierako urte haietan ere Urumea eta Langileko bertso ikasleak ikastolaz ikastola ibiltzen ziren saioak eginaz, bakoitza bere aldetik. 3-4 lagun joaten ziren inguruko herrietara, prestatutako bertsoak eta bapatekoak ere kantatzera. Uriak gogoratzen duenez: "Harreman hori oso aberatsa zen: orain harremanak oso hedatuak daude, baina orduan ez zegoen ezer, eta Oiartzungo 4 gazte Hernanira etortzea sekulakoa zen, euren artean hitz egiten zuten ezagutzen ez zuten eta deskubritzen ari ziren mundu horretaz, bertsolaritzaz alegia, ea ausartzen ziren kantatzera edo ez...". Santa Ageda bezperan ere ateratzen ziren bi ikastolak herrira. Prestatutako koplak eramaten zituzten, besteak beste Zinkoenea tabernara iristen zirenerako. Sagardotegira ere joaten ziren Langilekoak urte-



Joxe Luis Urdangarin izan zen herriko bertso eskolako lehen irakasleetakoa.

an behin, bertsolarien eskola zaharra probatzeko. Urumea ikastolaren jaialdi eta ekitaldietan ere bertako ikasle bertsolariek kantatzen zuten.

Herrian edozein ekitalditarako bertsolariak behar zirenean ere gaztetxoengana jotzen zen, "oraindik bertsotan ondo ez bagenekien ere" Urdangarinen hitzetan. Molotoff irratiko festa zela, Txalaparta eguna... Elurtxori elkarteak ere urtero antolatzen zuen saio bat, bi bertsolari handi eta herriko bi gazterekin. Horrek aldaketa handia ekarri zuela kontatzen du Uriak, izan ere, ordura arte "Pentsatzen genuen Hernanin bertso saioak egiteko beti kanpoko bertsolariekin aritu beharko genuela".

1989. BITERI: HERRIKO BERTSO ESKOLA

Langile ikastolan bertso irakasle ziren Juanjo Uria eta Itziar Otamendik deitu zieten bertsotan gehien egiten zuten Urumeako gazteei, Iñaki Zelaia, Jon Eizmendi eta Joxe Luis Urdangarini, bi ikastoletako bertso eskolak batu eta Hernaniko bertso eskola sortzeko. Horrela, Biteri kultur etxean hasi ziren klaseak ematen Zelaia, Eizmendi eta Urdangarin, Langileko bertso eskolako lehen belaunaldia oraindik gaztetxoa izaki. Herriko bertso eskola sortu zenetik inplikatu zen udaletxea ere.

Herriko bertso eskola sortzeak aldaketa handia ekarri zuela kontatzen du Urdangarinek: "Guk, gure garaian, bertsotan egiten zuten Langileko ikasleak Karmelo Baldan ezagutu genituen, Eskolarteko Txapelketan. Orain Hernaniko ikasle denek dute bertsolaritza ikasteko aukera, lehen ikastetxe batzuetan bakarrik zegoen".

Geroztik urtero ikastetxe denetatik pasatzen ziren bertso eskolarako deialdia egitera, eta ikastoletan

egindako lana zein garrantzitsua den hor nabarmentzen dela gogorarazten du Urdangarinek: "Ikastetxeetan irakasleek bertsolaritza sustatzen zuten einean umeek izena ematen baitzuten bertso eskolan". Mailaren arabera, hiru talde egiten ziren: hasiberriak, bertso eskolan urte batzuk eginik bapatean hasteko zorian zirenak, eta bapatekoak. Lehen bi taldeetan 15 ikasle inguru izaten ziren bakoitzean, eta bapatekoan 8 inguru.

Mikel Mendizabalek Urumea ikastolan eurei irakasteko erabilitako metodologia erabili zuten irakasle hauek ere Biteriko bertso eskolan. Lehen egunetik egiten zen paperean eta bapatean, bitatik klasean, baina kurtso hasieran gehiena idatziz egiten zen, eta kurtso bukeran, erraztasuna irabazi ahala, gehiena bapatean. Bapatean egiteko ariketa oso errazetatik zailagoetara pasatzen ziren: bakoitza esaldi bat esanaz hasten zen, neurri eta errima ahaztuta. Bigarren txandan, gauza bera esan behar zuten baina errimatuz. Kurtsoa aurrera joan ahala, doinuarekin egiten zuten. Urdangarini oso ahozapore ona utzi diote urte horiek: "Oso esker oneko lana da: Ez dut inor ezagutzen bertsotan ikasi nahi izan eta ikasi ez duenik". Eta denborarekin jende askok kantatzeari uzten badio ere, zale eta aditu izaten jarraitzen dutela gogorarazten du, "eta masa kritiko hori ere oso beharrezkoa da". Lehen helburua garbi zuen Urdangarinek: ondo pasatzea. "Guk ez genuen bertsotan jarraitu txapelketako finalean kantatu genuelako, guk jarraitu genuen sekulako giro ona genuelako, eta primeran pasatzen genuelako", horra etorkizuneko bertso eskolarentzat ere formula. Talde giroa lantzeko, Goizuetara asteburu pasa antolatu zuten 1995ean Tolosako bertso eskolan irakasle ari zen Irazurekin elkarlanean. Geroztik makina bat asteburu pasa egin ditu bertso eskolak.

Paulo Ttikiya da gure bertso eskola. 1996an etorri zen irakasle aldaketa, aurreko hirurek utzi beharra izan zutenean. Baina ordurako ez zen falta bertso eskolak emateko irakaslerik. Hurrengo 10 urtetan hainbat irakasle pasa ziren Biteriko bertso eskolatik: Aitor Mendiluze, Iker Osa, Itziar Eizagirre, Bakarne Urreaga, Karmele Apezetxea, Joxe Anjel Aranburu eta Estitxu Eizagirre. Garai honetan elkarte bezala eratu zen eta Paulo Ttikiya izena hartu zuen, Hernaniko bertsolari handiaren omenez.

Bertso eskolara ahalik eta jende gehiena etortzea zen irakasle hauen helburua, eta hasitakoek gustura jarraitu zezatela. Udara pedagogia berrien bila pasatu zuten: bertsolaritzaren historia ikasteko karta-jokoak, eurentzat propio jarritako bertsoak zirkoari buruz edo ihauteriez, parkean jolasteko altxorraren bila errimatu modukoak... Esan liteke bertsotan ikasteko mila eta bat malabarismo edo jolas asmatzeko joera ere izan zela: bertso tribiala, bertso antzerkia, bertso play-back, bertso-pilota... bertsoa jolas batekin lotu beharra balego bezala, bertsoa bera nahikoa jolas ez balitz bezala. Badirudi orain bertsotan irakasteko metodologian lehengora itzultzen ari garela, baina desberdin. Kendu disfrazak bertsoari, kendu ariketak, eta hasi kantuan.





Belaunaldi berria, bertso eskolaren lokalean: Unai Gaztelumendi, Asier Azpiroz, Arnaitz Lasarte, Oier Iurramendi eta Amaia Otxotorena.

2003an, Eulaten (Nafarroa) egin zituen udalekuak Paulo Ttikia bertso eskolak.

Esan liteke urteekin esperientzia lagun, klaseak gutxiago prestatzen direla, edo positiboan esanda, "bapatekotasunari leku gehiago ematen zaiola". Lehen urte haietan ariketa mordoa eramaten zuten irakasleek klasera, ordubetean egin zitezkeenak baino gehiago. Denborarekin, irakasleak klasera joan eta ikasleen jarreratik jolasa edo gaia ateratzen saiatzen dira, euren betiko jolasetan bertsoa edo hitz-jokoa sartzen...

Klasez kanpoko ekintza ugari egin izan dira azken 10 urteotan: 2000. urtetik Aste Santutan asteburupasa joaten dira: egunez klase bereziak egiten dira eta gauez saioak. Frontoia ere ez da urruti izaten, eta musak kentzen dizkie ordu libre gehienak. Azken gauean txapelketa xelebrea egiten da, eta kasualitatez, urtero enpatean bukatu da.

Udalekuak ere egiten ditu bertso eskolak. 5 egunez bertsotan, zirikan, putzuan eta frontoian gozatu bat hartzen dute. Bertsoa bera ere bizimoduaren zati bihurtzen da, lagunak ez dira ikaskideak, eta elkarrekin bizitutako esperientziek taldea sendoago egingo du hurrengo ikasturtean. Era berean, lagun berriak egiten dituzte, sarri beste herrietako bertso eskolako kideekin nahasten baitira.

2003. BERTSO ESKOLAKO LOKALA

Bertso eskolak, bere ibilian pilatzen ari zen esperientzia, kide kopuru gero eta handiagoa, antzerkietako monigoteak, liburuak... gordetzeko bere espazioa behar zuen. Eta 2003. urtetik, udalak utzitako lokala du estalpe. Bertso eskolako gazte belaunaldiak, 15-17 urterekin, badu elkartzeko bere lekua. Hauek larunbatetan eta udako oporretan ere maiz elkartzen dira hitz egin eta kantuan aritzeko. Karrera bertan estudiatu duenik ere bada.

Nolako gela, halako harremana. Bertso eskolako bi kidek egindako mikro parea, kajahorros baten desalojotik eskuratutako armairua, arbela eta mahai exagono bat. Horra gaurko bertso eskola. Horman, bertso eskolako eskurik abilenak besteen aurpegiei malizia dosi handi xamarrez egindako karikaturak, eta maisu handien argazkiak: Txirrita, Bilintx, Lazkao Txiki... Klasearen egiturak berak, asko baldintzatu du oraingo bertso eskolaren planteamendua: irakasle eta ikasleen arteko harremana, ierarkiak... Beñat Gaztelumendik kontatzen duenez: "Irakasleak beste bat gehiago izan behar du klasean, ez du irakasle papera jokatu behar. Bertso eskolan denok maila berean gaude, ez da komeni bata bestearen gainean jartzea, saiotan denok elkarrekin kantatzen baitugu. Gu Biterin hasi ginenean, irakaslearentzat beste mahai bat zegoen eta ikasleentzat aulki-pupitreak, eta beste era batera ikusten zen irakaslea. Orain mahai beraren bueltan exertzen gara...".

Hurrengo belaunaldia. Bertso eskolaren etorkizuneko belaunaldia, hurrengo erreleboa, iritsi da: Amaia Otxotorena, Oier Iurramendi, Arnaitz Lasarte, Iñaki Otxotorena, Beñat Gaztelumendi, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi, besteak beste. Talde heldua da, eta eurak aritzen dira, Gorka Tolosa beteranoekin batera haurrei klaseak ematen. Asteburupasak eta udalekuak antolatzen ere trebatu dira eta *Iraulio Panttalone* taldearekin biltzen hasi dira saioetan eta kantatzeko. Bertso eskolak beste urte batzuetarako arnas berria du, Arnaitz Lasartek ziurtatzen duenez: "Oraingo irakasle kateari esker, urte batzutarako ez dut irakasle faltarik ikusten. Baina hurrengo belaunaldira saltoa dago, 4 urteko aldea". Horra bertso eskolak zikloka izaten duen erronka, belaunaldi saltoak betetzea.

Ikasleen umeak ikasle. Aspaldiko urtetako ikasle kopuru handiena izan du bertso eskolak 2006. urtean (eskerrik asko Euskal Herriko Txapelketa 2005!). 4 taldetan banatuta 35 ikasle inguru aritu dira, txikienak 4 urte eta handienak 13 dituela. Baina adin diferenteko jendea nahasian ibiltzen da, gazteenek zaharrenengandik ikas dezaten. Eurak ere gustura daude horrela: "Beste aktibitateetan bakoitzak bere taldea du, eta beste taldeekin ez da harreman handirik izaten. Hemen 2 urte zaharragoekin eta gazteagoekin joaten gara asteburupasa" dio Amaia Otxotorena gazteak.

Bigarren ume belaunaldia ere jada bertan da: bertso eskolan aritutakoen seme-alabak iristen hasi dira, Anatxen bi alabak, esaterako. Baina Anatxek garbi du berak ez dituela bertso eskolara bultza: "Behartuta eta ez, jostatuz egin behar da bertsotan, orain bertso eskolan hartzen duzuen bezala. Zenbat gurasori diskutitu diodan hori! Euren semea bertso eskolara eramatea nahi zutela, handik bizkorrak ateratzen direla-eta... eta ezetz esaten nien, gogorik gabe baldin badoa alferrik joango dela". Bertsolari, maisu eta orain bertso eskolako guraso den Anatxek, gauza bakarra eskatzen dio bertso eskolari: "Jolasa, esijentzirik gabe. Bertsoa ez da asignatura. Guk ere, besterik gabe, bertsotan ikasi nahi genuen lagunarteko afarietan kantatu ahal izateko". Orain giroak ere laguntzen du bertso eskolara gustura etorri daitezen: gazteen artean eta gizartean bertsotan egitea natural hartzen da, eta baloratu ere egiten da, lehen ez bezala. Anatxek hori garbi du: "Nik ez nuen gauza bat izango dute nire alabek, agian. Gure etxean kontrario amorratuak nituen bertsoekin. Gure aitarentzat bertsolaria azken miserablea zen, ez nuen bultzada handirik izan etxean".

Ikastetxeetan ere lantzen da. Egun ikastetxeetan bertsolaritza lantzen jarraitzen dute, bertako irakasleek eusten diotelako ezinbesteko lan horri eta gainera Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak eskaintzen dituen klaseak ere jasotzen dituztelako, Unai Muñoa izanik irakasle. Beraz, ikasleak bertso eskolara datozenerako doinu pare bat ikasita dituzte, eta bertsoari buruzko ezagupen zabalagoa.

Astearen bukaera. Hamaika gauza aldatu da 25 urtean Hernanin, bertsolaritzan, eta bertso eskolan. Anatxen hitzetan, "Orain bertsotan ikaraga-

rri egiten da, neska-mutil kozkorretatik. Baina gaur txispa galdu da, erantzuteko txispa, tiki-takakoa. Lehengo librekoa ere galdu egin da asko, orain erabat gaiekin kantatzen dute". Baina dena ez da aldatu gaur bertsotan ikasten ari diren gazteengan. Belaunaldi berriko kide Asier Azpirozek honela definitzen du, 2006an, bertso eskola: "Bertso eskolak niretzat beti esan nahi izan du astearen bukaera".

Juanjo Uriak bertso eskolaren 25. urteurrenerako jarri zuen bertsoak borobiltzen du bertso eskolaren historia eta oraina:

Bertsotan ikas ote zitekeen
hainbat aldiz ametsetan
ta ilusioz blai sartu ginen
eskola-ikastoletan
ahalegin hura zatekeelako
bertsoaren mesedetan
ta gaur ikusi dugunarekin
saio oparo honetan
esan daiteke erreleboa
dagola esku onetan

TXAPELKETAK

Haur eta gaztetxoentzat egiten diren Eskolarteko Txapelketan parte hartzen dute Hernaniko bertsolariek umetan, geroago gazte sariketak probatzen dituzte eta azkenik Gipuzkoako, Nafarroako eta Euskal Herriko Txapelketak. Hernaniko bertso eskolatik ateratako bertsolariak podiumera igo dira behin baino gehiagotan. Txapelketekin kritiko izaten ere badakite, hala ere.

Ume-umetatik dute txapelketetan parte hartzeko aukera bertso eskolako ikasleek. 1981ean jokatu zen Eskolarteko lehen Txapelketa, eta besteren artean Juanjo Uria ere aritu zen antolatzen: "Eskolarteko Txapelketak eragiteko intentzioa zuen: itzal handiagoa, oihartzuna zuelako eta gazteei aukera emateko". Hala ere, garbi aitortzen du: "Oso gogorra zen umeak kantuan ikustea. Orain ohitu egin gara, baina ni asko aztoratzen nintzen haurrak mikroaren aurrean kantuan ikusita".

Joxe Luis Urdangarin gaztetxotan kantuan aritutakoa da Eskolarteko Txapelketan, eta ondoren irakaslearen larrutik ikustea tokatu zitzaion. Oraitzapen gazi-gozoa du Eskolarteko Txapelketa hoietaz: "Guretzat kanporako leiho bat zen. Urte osoa beti lagun talde berarekin kantuan pasatzen genuen, eta bapatean Eskolartekoan ikusten zenuen bazela jende gehiago gauza bera egiten zuena. Alde horretatik oso esperientzia ona zen. Baina batzuentzat estresbide handia zen, eta badut lagun bat orduz geroztik gehiago kantatu ez duena". Anatx ez da hain umetatik txapelketara joatearen aldekoa: "Berehala hasten dira txapelketan eta aurrera bazoaz bazara zerbait eta bestela batere ez. Norgehiagoka jartzen zaie hasieratik". Urdangarin ere oso kritikoa da sistema horrekin, "Justu urte osoan landutako filosofia ere hausten duelako txapelketak. Klasean ez dugu euren arteko lehia bultzatzen eta txapelketan figurak bultzatu izan dira". Urdangarinek aitortzen du gehiago sufritu zuela irakasle bezala, kantuan baino.

Alde positibotik begiratuta, umeak motibazio handiz biltzen dira bertso eskolan txapelketarako entrenatzeko, eta ikaskideak animatzera joaten dira pankarta eta guzti. Era berean, partehartzea bera baloratzen da Hernaniko bertso eskolan gehien, jendaurrean kantatzera animatuz.



Jon Eizmendi, Eskolartekoa irabazi zuen lehen hernaniarra. *(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).*

Hona Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketetan Hernanira ekarritako txapelak:

1983an, Jon Eizmendi, txikien mailan.
1984an, Jon Eizmendi, txikien mailan.
1986an, Pablo Joxe Aristorena, handien mailan.
1987an, Unai Agirre, txikien mailan.
1988an, Unai Agirre, txikien mailan.
1989an, Unai Agirre, txikien mailan.
1990ean, Anjel Telleria, Iñaki Lete, Maialen Lujanbio eta Gorka Tolosak osatutako taldeak, txikien mailan.
1991n, Maialen Lujanbio, handien mailan.
1992an, Aitor Mendiluze, handien mailan.
1993an, Aitor Mendiluze, handien mailan.
1994an, Maialen Lujanbio, handien mailan.
2000n, Peru Iurramendi, Aitor Larreta, Unai Gaztelumendi eta Beñat Gaztelumendik osatutako taldeak, txikien mailan.
2001ean, Jon Otxotorena, Aitor Larreta, Unai Gaztelumendi eta Beñat Gaztelumendik osatutako taldeak, txikien mailan.

2001ean, Agin Rezola, handien mailan.
2002an, Beñat Gaztelumendi, handien mailan.
2003an, Beñat Gaztelumendi, handien mailan.
2005ean, Unai Gaztelumendi, handien mailan.

Gipuzkoako, Nafarroako eta Euskal Herriko Txapelketetan ere utzi du haztarna bertso eskolak. Txapelketa garaian bertsolari helduak inoiz baino batuago aritzen dira entrenatzen, elkarri gaiak jarri eta aholkuak ematen. Entrenamenduen barruan sartzen da afaldu eta lagunartean animoak altxatzea ere. Eta txapelketa osoan zehar, koadrila handian joaten dira saioa ikustera, arraltsade edo egun-pasa. Hona Gipuzkoako eta Euskal Herriko Txapelketetan Hernaniko bertso eskolan edo asteartetako bileran ibilitako bertsolariek lortutako postuak eta partehartzea:

Euskal Herriko Txapelketa 1982.
Partehartzaileak: Fermin Argiñarena eta Joxe Argiñarena.

Euskal Herriko Txapelketa 1989.
Partehartzaileak: Pablo Joxe Aristorena, Manu Gomez, Joxe Mari Izeta, Nikolas Izeta, Joxe Mari Mujika "Anatx", eta Jose Manuel Oiartzabal.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 1991.
Partehartzaileak: Jon Eizmendi, Joxemari Izeta, Nikolas Izeta, Jokin Sorozabal, Joxe Luis Urdangarin, Juanjo Usarraga eta Iñaki Zelaia.

Euskal Herriko Txapelketa 1993.
Finalista: Jokin Sorozabal. Partehartzaileak: Joxe Luis Urdangarin eta Jokin Sorozabal.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 1995.
Txapelduna: Aitor Mendiluze. Txapeldunordea: Jexux Mari Irazu. Finalistak: Iñaki Zelaia, Jokin Sorozabal, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze. Partehartzaileak: Unai Agirre, Iker Alustiza, Jon Eizmendi, Jexux Mari Irazu, Nikolas Izeta, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Joxe Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia.

Euskal Herriko Txapelketa 1997.
Finalistak: Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio. Partehartzaileak: Xabier Legarreta "Arano", Unai Agirre, Iñaki Zelaia, Maialen Lujanbio, Jon Eizmendi, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Joxe Luis Urdangarin eta Jexux Mari Irazu.

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa 1999.
Hiru taldek hartu zuten parte Hernaniren izenean, eta hirurak lehen bueltan kanpo geratu ziren. Partehartzaileak: Hernani-Txisplau taldea: Gorka Tolosa, Itziar Eizagirre, Aritz Zerain eta Maialen Lujanbio bertsotan, Xabier Etxeberria gai-jartzen eta Mikel Iturbe epaile. Hernani-Iraulio taldea: Joxe Luis Urdangarin, Jon Iraola, Iker Osa, Iñaki Zelaia eta Eñaut Agirre bertsotan, Xabier Legarreta "Arano" eta Maitane Legarreta gai-jartzen eta Joxe Anjel Oiartzabal epaile. Eta Hernani-Iñatzu taldea: Unai Agirre, Iker Alustiza, Ibon Miner eta Estitxu Eizagirre bertsotan, Mikel Peruarena gai-jartzen eta Juanjo Uria epaile. Andoain-Urnieta taldean ere, Hernanin bertsotan egiteko bildutakoez osatu zen: Joxe Mari Mujika "Anatx", Jokin Sorozabal, Aitor Mendiluze eta Jon Garmendia "Txuria" bertsotan, Joxe Fermin Argiñarena gai-jartzen eta Joxe Manuel Oiartzabal epaile. Eta txapelketa horretan Zarautzen kontra finala jokatu ondoren bigarren atera zen taldean ere, Erniope taldean alegia, bazen Hernanira bildutakorik: Jexux Mari Irazu, Aitor Usandizaga eta Amaia Agirre bertsolariak.

Euskal Herriko Txapelketa 2001.
Txapeldun-ordea: Maialen Lujanbio. Finalistak: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu. Partehartzaileak: Unai Agirre, Aitor Mendiluze, Iñaki Zelaia, Aritz Zerain, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2003.
Txapelduna: Maialen Lujanbio. Finalistak: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu. Partehartzaileak: Unai Agirre, Iker Alustiza, Joxe Anjel Aranburu, Estitxu Eizagirre, Jon Iraola, Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Ibon Miner, Iker Osa, Josu Oiartzabal, Agin Rezola, Joxe Luis Urdangarin, Aitor Usandizaga, Iñaki Zelaia eta Aritz Zerain.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2005.
Hirugarren postua: Maialen Lujanbio. Finalistak: Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Partehartzaileak: Iñaki Zelaia, Estitxu Eizagirre, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio.



Goiko argazkian, 1999ko Herri Arteko Txapelketa: Hernanitik hiru talde atera ziren, eta bertako bertso eskolan ibilitakoek Andoain-Urnieta taldea eta Erniope taldea ere osatu zituzten. Txapelketa hura izan zen azken aldiz belaunaldi zahar eta gazteak kantuan lotu zituena. Ondoko argazkian, 2003ko Gipuzkoako Txapelketan, Juanjo Uriak Maialen Lujanbiori txapela jantzi zionekoa. *(Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).*



Hona Juanjo Uriak botatako bertsoa:

Txirritan berri nik izan nuen
oraindik ume nintzala
ederki asko iragarri zun
izango zuen itzala.
Bera Hernanin gazte hasi zen
hemen Maialen bezala
ta gaur entzunda uste det pozik
aurrera dezakedala
gure herrian gaurdanik beste
Txirrita haundi bat badala.

OINARRIZKO KANPAMENTUA

Kanpindendak ere lau alde. Lau puntu bertsoak. Eta zortzi soka, zortzi lerro zuzen, lurrera lotzen dutenak.

Gure espedizioa ez da gailur bila abiatzekoa izan. Nahiz eta banaka batzuek, joanean-joanean gorako bidea egin... Imajinatu mendizale bat, ahalegin gorrien ostean zortzi mila metroko gailurrera iritsi eta walkiaz bestaldera inor ez duena.

Gure espedizioa ez da zeharkaldi zirkularrak egitekoa izan. Bertso eskolatik bertso eskolara. Ikasle hasi eta biran-biran irakasle bilakatu. Baina zenbaitek ibilbide hori aukeratu du, eta badoa... Imajinatu ibiltari bat bere pausoak laguntzeko inor ez daukana, ez bidaiderik joanean, ez belarririk etorreran, ez lagunik bidean jarraitzeko...

Gure espedizioak ez du kolorezko markarik zuhaitzetan, ez bide jakinik, ez iritsi beharrik. Ez du misiorik. Geure gustuz eta geure gustuagatik egiten dugu egiten duguna. "...eta zabal zazu".

Gure espedizioak ez du esponsorrik. Ez du patrozinadorerik, ez arropetan, ez buruetan. Gure espedizioak ez du mailarik eman beharrik. Batzuek kamamila biltzen ari; batzuek bide berriak asmatzera jo; baten bat haitz baten kontra lo.

Gure espedizioa izan ere ez da espedizioa ere. Bizimodu bat. Nahi duena dago hemen. Atea beti zabalik, sartzeko, irteteko. Amodio harreman polit bat: lotu gabe ematen du; eman, eta emateko gogoa eman.

Neurri guztietarako ibilbideak bai baitira: 8A+, 9tx, 4H... Bertsoak zenbat neurri.
Nola izan bestela pasioan dabilenak goi-mendietako amets lainoen berri... Nola dasta gailurreko izotzetatik datorrenak kamamila bildu berria... Nola entzun sukalde lan itsuan ari denak bidea den misterioaz... Nola, oinarrizko kanpamenduan bildu ezik? Lau puntu eta zortzi lerroko kanpindendaren pean, nonahi inprobisatzen den gure oinarrizko kanpamenduan.

Maialen Lujanbio

IRAULIO PANTTALONE

Urte asko joan dira Juaniren tortillak janez ikastolako gimnasioan bertsoekin gozatzen hasi ginenetik eta urte guzti hauetan argi izan dugu, bertsoa jolaserako eta ondo pasatzeko tresna bat dela. Ondorioz, bertso eskolako lau hormetatik kanpo ateratzen saiatu izan gera beti.

Urruti daude gure bat bateko bertsogintzako lehen urratsak, udaletxeko gelatik atera eta kalean egindako bertso-triki kalejirak, edo arratsaldeko zortzitan Anatxek inprobisatutako sagardotegiak. Maisu bikainak genituen eta erakutsitako bidea ez zen txarra, orduan ikasle gazte gazteak ginenak oraindik ere lagun bikainak bai gera.

Ostiraletako bertso eskola ofiziala sortu eta bere bidea aurkitu ondoren, bai herrian eta bai gure artean beste premi batzuk sumatzen hasita, Iraulio Panttalone bertso kabiya sortu zen, besteak beste bertsoak kalean presentzi gehiago izateko helburuarekin.

Lehendabiziko aldaketetako bat Errege Eguneko bertso saioa antolatzetik bertso lata antolatzera pasatzea izan zen, ezin izen hoberik aurkitu, herritarrek ondo dakitelako zenbateko lata ematen dugun. Gabonetako aste berezi honetan, kalean, egitarau barruan adina bertso izaten da egitarauz kanpo: bertso afari bereziak, asto karro gaineko kalejirak, herriko txapelketa azkarrak, bertso foto-matoia eta, nola ez, kale antzerkia. Azken honekin herritar asko sorpresaz harrapatuz, zenbat eta zenbat irribarre eta barre algara sortu ote ditugu, guk eraginak edo gure kontura egindakoak. Baina dena esan behar bada, lotsak galtzen ikasteko ere balio izan digu. Ekitaldiak ekitaldi, gero afaldu ederki eta maiteminduentzat Parix eta guretzat Yausika lemapean lepotik heldu eta segi aurrera.

Iraulio barruan ezin ukatu zenbait aterpetxetan pasatako asteburuek ere garrantzi handia izan dutela, bertsoa, pelota, eta parranda pixka bat uztartuz, gure memorian geratuko diren anekdota eta pasadizo asko sortu direlako.

Azken urte hauetan bertsoa sagardotegietara ere eraman dugu eta ni behintzat konturatu naiz, uste gabe bertso entzule bihurtutako baten esker on beroa bezalakorik ez dagoela, noski, sagardoaren laguntzari esker.

Kontuak kontu eta historiak histori, guretzat garrantzitsuena herriko bertsolari talde bat baino gehiago lagun koadrila bat garela jakitea da, eta koadrilak herrian, kalean, ibiltzen direnez gurean bertsorik ez da falta, eta ze ikasle finak datozen ikusita, ez da faltako.

Iñaki Zelaia

Jose Manuel Ochotorena

Salió de Hernani con 15 años y ahora vive momentos inolvidables tras su segunda temporada como preparador de porteros en Liverpool. Ha sido campeón de liga, de UEFA, e incluso de la prestigiosa Champions League. Es José Manuel Ochotorena, y presume orgulloso ser del barrio de Epele.

¿Cómo recuerdas tus inicios en el mundillo del fútbol?
Empiezas a jugar con los amigos en la calle, pero a nivel de equipo comencé haciéndolo en el Torneo Atsegindegi, cuando tenía 12 años. Jugaba en el "Elizatxo".

Antes de marcharte al Real Madrid, ¿llegaste a jugar en el Club Deportivo Hernani?
Prácticamente no jugué en el Hernani porque con 15 años me fui a Madrid. Llegué a jugar en el juvenil B 8 ó 10 partidos, ya que en mi último año en el pueblo subí con ellos a entrenar.

¿Qué recuerdas de aquel "Elizatxo"?
Tengo muy buenos recuerdos. Era un grupo de amigos. Jugaba con Sanz, los Lizeaga, Kerejeta, Etxeberria... Nos entrenaba Paquillo, un chico joven del barrio de Elizatxo.

Qué bonito era el Torneo Atsegindegi verdad...
Era muy famoso. Había una rivalidad muy grande y equipos muy fuertes. Las finales se solían jugar en Txantxilla y el ambiente que se formaba era increíble. Los partidos eran muy bonitos y se congregaba muchísima gente en Atsegindegi los sábados y domingos. Tengo un recuerdo muy bonito, porque fue el inicio de mi vida futbolística. Siempre deseábamos que llegara el fin de semana para que te viera jugar tanta gente.

Gracias a una de esas personas que iban a ver fútbol te fuiste a Madrid...
Sí. Pasaba por allí Josetxo Arakistain, que fue portero del Real Madrid y que en aquellos momentos trabajaba como ojeador del equipo merengue en el País Vasco. Se paró, coincidió que estaba yo jugando, preguntó y, después, se acercó a ver más partidos. Fue él quien informó de que yo existía y que sería bueno que me hicieran unas pruebas.



Alineación del Elizatxo en una de las finales jugadas en Txantxilla, en la temporada 75/76. *(Fotografía: Agustin Sanz).*

¿Por qué portero?
Pues no lo sé. Entonces el ídolo de todos los chavales que jugábamos al fútbol era Iribar. Todos queríamos ser como él; había mucha tradición de porteros vascos y todos queríamos emular lo que ellos hacían, y quizá por eso empecé a ponerme en la portería.

¿Y...?
Nos llamaron a Garmendia (ex-portero del Eibar) y a mí para esas pruebas. Fuimos a Madrid acompañados por Mikel Iguarán, hicimos las pruebas y

quisieron que nos quedáramos los dos. Garmendia, por motivos familiares, decidió que no. Yo, en cambio, dije que sí y me quedé en las categorías inferiores.

¿Tuviste dudas para dar el sí?
Muchas. Tenía sólo 15 años y los aitas eran reticentes. Era pasar de vivir en el barrio de Epele a Madrid. Además, eran otros tiempos, había menos información, más respeto a la hora de tomar este tipo de decisiones... Costó mucho pero mi cabezonería fue grande. Yo quería ir a probar para ver si realmente valía para esto. Que te llamara el Real Madrid era mucho, y me quedé allí.

¿Y cómo fueron aquellos primeros años en Madrid?
Vivíamos en una pensión que el Real Madrid tenía para jugadores de fuera. Nos controlaban los estudios, teníamos un tutor... Fue duro. Era muy joven y el cambio fue brutal. De vivir en un ambiente de pueblo, cerrado, pasé a otro tipo de vida totalmente distinta. La verdad es que me costó mucho. Ahora lo ves de otra manera, pero entonces pasé momentos "durillos".

¿Os pagaban algo?
Nos pagaban a los chicos de fuera una asignación mensual para cubrir gastos, para que pudieras darles algo a tus padres, para que la familia viera con mejores ojos que su hijo estuviera allí, pero era poco dinero, unas cinco o diez mil pesetas de las de antes.

Y poco a poco fuiste subiendo hasta el primer equipo...
Tengo recuerdos muy gratos, porque coincidí con grandes jugadores y conseguimos grandes resultados (ganó 3 ligas y 2 Copas de la UEFA, y con el Castilla llegó a una final de Copa del Rey ante el primer equipo...). Fueron años muy buenos de los que me quedan los gratos recuerdos de las celebraciones y de la experiencia de coincidir con figuras del fútbol que me aportaron mucho.

¿Cómo recuerdas el día de tu debut?
Fue un partido en Alicante. Subí al primer equipo con Amancio y me hizo debutar Molowny. Se lesionó Miguel Ángel y debuté.

En el Real Madrid fuiste suplente de grandes porteros...
Era difícil jugar porque cuando subí al primer equipo coincidí con García Remón, Miguel Ángel y Agustín. Jugué de titular una temporada y media, pero ficharon a Buyo; él se convirtió en el número uno y estuve prácticamente dos años sin jugar. Entonces decidí marcharme al Valencia.

Fuiste a Valencia para disfrutar de más minutos claro...
Cambié para jugar más, y jugué más. Completamos muy buenas temporadas e incluso conseguí



Ochotorena vistiendo la elástica del Valencia C.F. *(Fotografía: Agustin Sanz).*

ser Zamora y tener el premio de ir al Mundial de Italia 90.

El Zamora lo ganaste con un "truco" final...
Era el último partido de liga, precisamente en el Bernabeu. Llegaba muy igualado con Zubizarreta. Se habló de que quizá no iba a jugar para ganar el trofeo pues ya había cumplido el cupo de partidos necesario para ganar el premio, pero mi entrenador entonces (Víctor Espárrago), me dijo que iba a jugar, pero que si veía peligrar el Zamora, me sustituiría. El Madrid nos marcó el primer gol pronto, y antes de que nos marcara el segundo me cambió. Y así gané el trofeo Zamora.

¿Cómo viviste el Mundial?
Fue muy bonito. Estuve yendo durante 2-3 años a los partidos de la fase de clasificación y fui también a la fase final. El titular fue Zubizarreta. Ablanedo y yo los suplentes. Fue toda una experiencia vivir un mundial desde dentro. La preparación, el ambien-



José Manuel Ochotorena entrevistado en un entrenamiento durante el mundial de Italia 90. *(Fotografía: DV).*

te, la atmósfera que se vivía en un Campeonato del Mundo... Y nos eliminaron en cuartos, como siempre claro.

Tras tu paso por el Valencia, vas a Tenerife, Santander, Logroño...

Esperaba quedarme más tiempo en Tenerife, pero acabé un poco de trotamundos al final de mi carrera. Logroño y Santander fueron estaciones de paso porque era ya el final de mi vida futbolística. Aún tuve alguna oferta más, pero decidí dejarlo.

y llegó Boronat. Él me animó muchísimo más para que siguiera trabajando con los porteros, y gracias a ellos estoy ahora donde estoy. Me ayudaron mucho.

El éxito como preparador de porteros te llega en Valencia...

Decidí con la familia afincarnos en Valencia, ya que teníamos casa allí y nos habían tratado muy bien. Entonces me llamó Rafa Benítez para trabajar con él y no me lo pensé.



Ochoto junto a otro portero euskaldun, Vergara, durante su pertenencia al Logroñés.

¿Te fue sencillo decir: "Lo dejo"?

Siempre es difícil. Aunque tu vas madurando esa posibilidad, el día que se acaba es duro. Sobre todo el primer año, y si no tienes la posibilidad de seguir en el mundillo, todavía más. Yo siempre digo que lo más bonito es jugar y aunque desarrolles otra actividad relacionada con el fútbol, no es lo mismo. La ilusión, la sensación de placer que te produce no es comparable a nada. Recuerdo aquel primer año, y lo pase mal.

¿Y cómo empiezas a ser entrenador de porteros?

Tras un año como representante de Adidas para el Real Madrid, me llamó Víctor Muñoz que entonces estaba en el Logroñés y me ofreció ser el preparador de los guardametas. Acepté. Echaron a Víctor

Y de ahí a Liverpool, alejándote otra vez de la familia...

Fue difícil decidirse, pero por mi forma de vida, que ha sido un poco aventurera, cuando se me han presentado las oportunidades siempre me ha apetecido probar, por lo que accedí, y aquí estoy. Al principio fue difícil, porque no dominaba el inglés, es otro fútbol, otras costumbres... es muy distinto a todo lo que nosotros estábamos acostumbrados. En este segundo año ya nos estamos adaptando mejor. Fue difícil pero ahora estamos muy bien.

En Inglaterra apenas destituyen a los entrenadores. Menuda tranquilidad...

Aquí el trato siempre es fabuloso. Han hecho que nos sintamos muy cómodos, su predisposición





Ochoto forma parte del cuerpo técnico de la selección española como, no podría ser de otra manera, preparador de porteros. *(Fotografía: DV).*

siempre ha sido total. Nos han dado todas las facilidades y no tenemos ninguna queja. También la afición es genial. No falla nunca. Mantiene mucha fidelidad y respeto. Anima mucho y nunca se decepciona. Demuestra una pasión sin límite hacia su equipo.

Yo todavía no me creo que ganarais la Champions como la ganasteis...

No entraba para nada en nuestros cálculos ganar la Liga de Campeones. Queríamos hacer una buena competición el primer año, pero no esperábamos ganar. Nos adaptamos muy bien a la competición, poco a poco fuimos haciéndonos fuertes, creyendo en nuestras posibilidades, y así llegamos a la final. Y paso algo difícil de explicar, porque irte 3-0 al descanso contra el Milán, remontar, y ganar, fue algo inexplicable. Es un momento que muchas veces recordamos y que aún seguimos emocionándonos porque fueron instantes muy intensos. Nunca fuimos favoritos y será muy difícil que algún día se pueda ver una final como aquella.

¿En los penaltis el entrenador de porteros qué le dice a su pupilo?

Habíamos estudiado al rival, habíamos visto algunas tandas de penaltis del Milán, las analizamos y estudiamos, pero al final todo el mérito es del portero. Le animas y le dices que esté tranquilo, pero todo el acierto es suyo. Además, sinceramente, viendo como fue el partido, todos nos fuimos creciendo y tras empatar todos pensamos que aquella final no se nos podía escapar.

Cuéntanos cómo fue el recibimiento...

Nos sorprendió a todos. Habíamos vivido los de Valencia, que fueron multitudinarios, y pensábamos que era lo mejor que nos había pasado, pero aquel recibimiento nos sorprendió más aún porque toda la ciudad se echó a la calle. Gente encima de los árboles, de las farolas... El autobús no podía ni pasar. Vimos cosas exageradas, incluso gente que arriesgaba su integridad física por vernos pasar. Fue increíble.

Estáis muy a gusto por lo que se ve. Por lo tanto, ¿pensáis seguir, no?

Sí, Sí. Aquí se hacen contratos largos y aunque pases un año malo ellos siguen confiando en ti. Les está gustando nuestro trabajo y tenemos la idea de seguir. Nos sorprende un poco, porque estamos acostumbrados a ser destituidos cuando no acompañan los resultados, pero en Liverpool tenemos varios años más de contrato y por ninguna de las dos partes hay intención de romper la relación.

¿Y de volver a Hernani?

Nunca descarto volver a Hernani a vivir, porque mi corazón está allí con vosotros. Yo siempre digo y me gusta decir que soy del barrio de Epele, si no me echan la bronca. Tengo ganas de volver y nunca podré renunciar a esa posibilidad de volver a mi casa, porque mi casa esta en el barrio de Epele y en Hernani. Soy consciente de que será difícil pero no dejo que esa esperanza, en mi camino de trotamundos, se llegue a apagar.

Al menos vendrás de visita...

De visita seguro, y espero que para algo más que solo de visita.

Hernaniko haur eskola

Hernaniko haur eskola dagoeneko bukatuta dago. Bertako gelen koloreak, argi ugaritasuna, eremuen zabaltasuna, lorategia, bere igerileku txikia... gure begien gozagarri dira.

Azkenean, egia bihurtu den ametsa iruditzen zaigu: urteetan zehar hainbat erakundetan aldarrikatutako eraikin berria; behar beharrezkoa bertan haur gehiagok eskolaratzeko aukera izateko.

Nolanahi ere, urrun geratzen dira Hernaniko haur eskolaren lehenengo urrats haiek, dagoeneko hogeita hamar urteko ibilbidea baitu. Izan ere, guraso talde baten eskutik sortu zen eta haiek lanean zeuden bitartean beren seme-alabek kalitatezko zaintza eta heziketa izateko borrokatu zuten.



Hona hemen aipatutako ibilbide luze horren laburpena:

- 1975. urtea: Atzieta haurtzaindegia sortu zen 0-4 urte bitarteko neska-mutilentzat. Lan Ministerioaren dirulaguntza izan zuen.
- 1977. urtea: Txirrita haurtzaindegia sortu zen 0-6 urte bitarteko neska-mutilentzat. Osasun Ministerioaren dirulaguntza izan zuen.
- 1982. urtea: aurreko bi haurtzaindegiek bat egin zuten Langile ikastolarekin eta horrek 0-5 urte bitarteko haurrak hartu zituen.
- 1988. urtea: 0-3 urte bitarteko haurrentzat haurtzaindegia antolatu zen. 1988. urtean, estatuko gobernuak hainbat eskumen eman zizkion Eusko Jaurlaritzari.

Haurtzaindegiak Foru Aldundiko Ongizate Departamentuaren ardurapean gelditu ziren.

- 1989. urtea: udalek bereganatu zuten haurtzaindegi zerbitzua eta Hernanin Marieluts Udal Haur Eskola sortu zen -gaur egungoa, hain zuzen ere-.
- 1990. urtea: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea, LOGSE delakoa, onartu zen.
- 1991. urtea: haur eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen dekretua onartu zen.
- 1995. urtea: haur eskola Udalaren Hezkuntza Sailera pasa zen.
- 2006. urtea: irailean aro berri bat hastera doa. Hernaniko Haur Eskola Partzuergoko haur eskolen sarean sartu da.



Gehienen antzera, gure haur eskola behar jakin bati erantzuteko jaio zen: 70eko hamarkadan lan merkatuan sartu ziren hainbat eta hainbat emakumeren seme-alabak zaintzeko.

Gainera, ez dugu ahaztu behar nolakoak izan ziren hasierak. Erakunde ofizialen diru laguntzarik gabe; edo jasotzen zenean, ezer gutxi. Eraikinei dagokienean berriz, zaharrak eta desegokiak gehienak: legeak gutxieneko baldintzak ere arautu gabe baitzituen oraindik. Hala ere, hasiera horietan indartsu ginen eta guztion partaidetzarekin, bai guraso, bai irakasle, eta baita herriko zenbait sektoreren laguntzarekin ere, egundaino iritsi gara. Garai horietan, nahiz eta bitartekorik ez eduki eta pobrezian moldatu (zozketetarako txartelak salduz, tonbolak ipiniz...) laster konturatu ginen nolako garrantzia zuen haurraren bizitzan lehen etapa horrek. Hasieran asistentziazkoa edo zaintzazkoa soilik zen lan hori hankamotz geratzen zela ikusita, eraldatu eta erantzun pedagogikoa indartzen saiatu ginen.

Hori dela eta, haur eskolen Koordinakundean sartu ginen. Aurrerago, Gipuzkoako Koordinakundea sortu zen, baita estatukoa ere, eta gu partaide izan ginen.

Hainbat urte joan dira geroztik!

Orain dela denbora dezente, 1979. urtean hain zuzen ere, Granadan egindako lehenengo jardunaldietan, estatu mailan "haur eskola" kontzeptua sortu genuen. Hau da, "haurtzaindegia" izateari utzi eta "haur eskola" bihurtzeko nahia plazaratzeaz gain, helburu hau lortzeko urratsak ematen hasi ginen. Edozein modutan ere, zaila izan zen bidea, izan ere, haurtzaindegi bakoitzaren sorreratik abiatu baikinen, errealitate ezberdinetatik.

Gure kasuan, 1989. urtean Hernaniko Udalak bereganatu gintuen, eta alde batetik aurrera pauso handia izan zen, azkenean erakunde baten babesean baikeunden. Baina bestetik buruan genuen proiektu aurreratu hura alde batera utzi behar izan genuen: 0-16 urte bitarteko haurrez osatutako eskola orokorra, ziklo bakoitzaren berezitasunak errespetatuaz, noski.

Horrek guztiak, hezkuntzaren arloan genituen helburuak babestea, tinko mantentzea eskatzen zigun. Alegia, eskolak berezko dituen ezaugarrietara egokitu behar genuen zentroa, hau da, haur eskola "eskola formala" eta familiaren arteko abiapuntu bihurtzea.

Beraz, horrelatsu saiatu gara gure haur eskolaren proiektua aurrera eramaten, eta era berean, ikastetxeko curriculuma lantzen.

Ikus ditzagun, bada, gure proiektuaren nondik norakoak:

ESKOLA BEREZIA.

Haur eskolak, hezkuntza bizitzaren lehen etapaz arduratzen denez, 0-3 urte bitarteko neska-mutilak hartuko ditu. Etapa horretan hezkuntza prozesua gurasoekin elkarlanean garatuko da. Berezko ezaugarriak ditu, hau da, ondoren datozen hezkuntza etapekin parekatuz gero, nortasun propioa; hurrengo hezkuntza etaparekin koordinatuta, hau da, herriko gainerako eskolekin harremanak izanaz.

GIZARTERATZEA ETA GIZARTE MAILAKO ESBERDINTASUNAK KONPENTSATZEA.

Gizartearen helburua da bere kideak gizarteratzea eta haur eskolak ere, dagokion heinean, ardura



hori onartzen du. Gizarte mailako desberdintasun eta gabeziak (murriztapen fisiko eta psikologikoak, kulturalak, ekonomikoak...) neska-mutilak jaio bezain laster finkatzen hasten direnez, horiek konpentsatu eta ezabatzeko haur eskolak egiteko garrantzitsua eta erabakigarria du. Horregatik, haur eskolak lehentasuna emango die era guztietako gabezia eta desberdintasunak jasaten dituzten neska-mutilei eta bakoitzaren egoera sozio-ekonomiko eta kulturalari egokitutako plan zehatzak egingo ditu.

HEZKIDETZA.

Hezkidetzaren helburua honako hau da: hezkuntza integrala ematea. Desberdin izatearen aberastasunaz jabetu eta gozatzea dakarrena, mutilen eta nesken inguruko ohiko kontuak eta bereizkeriak baztertuz eta sexu estereotipoak gaindituz.
Hezkuntza etapa honetan sortu eta eratu ohi da haurraren nortasunaren oinarrizko egitura. Egitura horretan sexu desberdintasuna ezaugarri adierazgarri eta nabarmena da. Hori dela eta, aro egokia da hau, bai neska mutilekin bai horien gurasoekin, bi sexu genero horien alde positiboak lantzeko eta modu horretan ohiko rolak desmitifikatzeko.

Haur eskolak bere esku dauden bitartekoak jarriko ditu aipatutakoa horrela izan dadin.

ANIZTASUNA ETA BALORE DEMOKRATIKOAK.

Haur eskola hezkuntza zentroa den aldetik, gurasso zein irakasleek defendatzen dituzten iritzi, aukera politiko, sozial, erlijioso eta moral guztiak errespetatuko ditu. Aniztasuna abiapuntutzat hartuta, ideologia ezberdinen arteko bizikidetasuna bultzatuko du haur eskolak, elkarri zor diogun errespetuaren alde lan egiteko.



Ideologia aniztasuna errespetatuz eta demokratikoki jokatuz bakarrik lortu ahal izango dugu Hernaniko biztanle guztiengana iristea eta horixe da, hain zuzen, haur eskolaren izaera publikoaren muina.

DOHAINTASUNA.

Hezkuntza haur guztien eskubidea da, eta beraz,

denon erantzukizun edo ardura, batez ere, administrazioarena. Horregatik, eta gizarte justu batek haur guztiei aukera berdinak eman behar dizkienez, haur eskola saiatuko da zerbitzu hau doan izan dadin edota gizarteko segmentu guztiek erabiltzeko aukera izan dezaten.

ESKOLA EUSKALDUNA.

Gure hizkuntz errealitatea abiapuntutzat hartuta (gizartearen helburua benetako elebitasuna lortzea da) eta euskara gure herriaren hizkuntza eta gure kulturaren ardatz nagusia dela kontuan izanda, haur eskolak euskara ikastea eta erabiltzea bultzatuko du.

Adin honetako haurrak ez du oraindik bereganatu, egituratu, inongo hizkuntzarik. Guk euskara erabiliko dugu ohiko harremanetarako eta beraiekin edukiak lantzeko. Ondorioz, hezkuntza etapa hau bukatzen dutenean euskaraz eskolatzeko aukera izango dute beraien gurasoak euskal hiztunak izan, ala ez. Hori garrantzitsua iruditzen zaigu euskara berreskuratzeko edo berreuskalduntzeko prozesuarentzat.

Haur eskolak Hernaniko egoera sozio kulturalaren ispilu izan behar du, eta alde horretatik, gure herriaren nortasuna definitzen duten kultur adierazpen garrantzitsuenak bultzatuko ditu: pertsonaiak (Olentzero), Kaldereroak, folklorea, musika... Hori lortzearren inguruko elkarte eta erakundeekin lan egingo dugu, behar izanez gero.


Azken finean, haur eskola gure herriko ingurune sozio kulturalean txertatuko da.

Amaitzeko esan, gurasoak aspaldi hasi zirela beraien seme-alaben eskoletan parte hartzen eta gaur egun hementxe daudela gurekin batera, udalarekin batera, kezkaturik batzuetan eta itxaropentsu beste askotan.

Gaur oso pozik gaude haur eskolaren eraikuntza berria dela eta. Beste nolabaiteko arazoak, gaurkoz behintzat, ahaztu egin nahi ditugu, eta une goxo honetan murgildu, beti ere bidean sortzen diren oztopoei aurre egingo diegun itxaropena izan dezagun, eta ez dezatela horiek gure gaurko poza lausotu.



Hernaniko Printzak



Crónica 2005eko kronika

Urtarrila / Enero

• Xabat Otxotorena proclamado ganador del Trofeo Euskal-dun - DEIA.

• Hiru hernaniar Espainiako errugbiko selekzioarekin: Pedro José Dávila seniorretan eta David Pélaz eta Mikel Orbegozo junior mailan.

• Cuatro finalistas y dos txapelas en el Campeonato de Gipuzkoa de Pelota: Ezeiza - Grajal campeones en mano parejas (categoría cadete) y Lujanbio - Zabala en paleta femenina.

• Langile Ikastolako haurrek irabazten dute BIDEGIk antolatzen duen Olentzero Txapelketa, Gipuzkoa mailan.

• Hainbat aktibitate Gazte Txokoan antolatuak.

• Postontzietan publizitaterik ez hartzeko kanpaina martxan San Markos Mankomunitateak bultzatuta.

• Azucena Vieites premio Gure Artea.

• Udaletxean bijilantzia kamarak jartzen dira; bideo-kamera eta kontrol sozialaren aurkako ekimenak herrian.

• *"Dultzaina Gipuzkoan. 1950 hamarkada arte"* Juan Mari Beltranek eginiko liburuaren argitalpena.

Urtarrila 1 enero
• La hernaniarra Malen Lopetegi Muga, recien nacid@ más madrugador@ de 2.005 en Gipuzkoa.

• Hernaniko Saxofoi taldearen kontzertua Udaletxeko arkupeetan.

Urtarrila 5 enero
• Errege kabalgata.

Urtarrila 6 enero
• Accidente en el "Depor" al desprenderse parte del techo; no produce consecuencias mayores.

• Aldabe, Von Wichmann, Pagola y Arrozpide en el podio del Cross Internacional de Reyes celebrado en Donostia.

Urtarrila 8 enero
• Egaña eta Irazu bertsolariak Martindegin.

• Bertso-kale antzerkia Iraulio Panttaleonek antolatuta.

Urtarrila 11 enero
• Charla sobre conflictos familiares en Hernani Institutua.

Urtarrila 12 enero
• Yogari buruzko hitzaldia Biterin.

Urtarrila 13 enero
• Concierto del grupo local *Ekhin* en el Kixkal.

• Zine Klub: *"Luna de Avellaneda"* Biterin.

• Contrato de sponsorización entre HISA (Hernaniko Industrialdea S.A.) y Hernani Club de Rugby (División de Honor B).

• Sua "Celulosas de Hernani" enpresan.

Urtarrila 13 - 26 enero
• Oscar Galianaren arte lanak ikusgai Biterin.

Urtarrila 14 enero
• "Borroka Eguna" SEGIk deituta.

Urtarrila 15 enero
• Kepa Aira libre.

Urtarrila 15 - 16 enero
• Eski ikastaroa Mendiriz Mendik antolatuta.

Urtarrila 15 - 30 enero
• Nagore Lozanoren argazkiak Goiz Argin.

Urtarrila 17 enero
• EHEk euskarak Osakidetzan jasaten duen egoera salatzen du.

Urtarrila 18 enero
• Atzerritarrentzako Erreglamenduari buruzko hitzaldia AMHER elkarteak antolatuta, Biterin.

Urtarrila 19 enero
• Tabernetako Bertsolarien 11. Txapelketa.

Urtarrila 21 enero
• AHTren aurkako konzentrazioa Hernaniko plazan.

• Eskoletan Agenda 21 garatzeko konpromisua sinatutzen dute Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Urumea Ikastolak; Urumeako ikasleek haien proposamenak kurtso bukaeran aurkezten dituzte.

Urtarrila 22 enero
• *"Groau!"* antzerki-obra Biterin.

• Gazte Asanblada martxan jartzeko batzarra.

Urtarrila 23 enero
• Karlos Argiñano, Ixak Salaberria eta Martin Berasategi sukaldariek hasiera ematen diote Txotx denboraldiari. Beasaingo herria omenduta.

• Haurren Trialsin jaialdia Fagollagan.

• Jon Plazaola umoristaren monologoak Goiz Argi Tabernan.

• Presoen eskubideen aldeko sinadurak biltzen ditu ETXERATek.

Urtarrila 25 enero
• Conferencia sobre *Derechos Humanos* organizada por la ONG Tercera Edad para el Tercer Mundo, en Biteri.

• Lur Korta ipuin kontalaria Udal Liburutegian.

• Elurrak Hernani zuritzen du.

• Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko planaren aurkezpena Biteri kultur etxean.

Urtarrila 26 enero
• Edurne Pasaban proyecta un documental sobre el K2 en Biteri.

• Autoestimari buruzko hitzaldia Hernani Institutuak antolatuta, Biterin.

Urtarrila 27 enero
• Agenda 21 zehazteko herritarrekin bilera Biterin.

• Presentación de TOPAGUNEA, plataforma por los derechos de los prisioneros politicos vascos en Biteri kultur etxea.

Urtarrila 28 enero
• Concierto del grupo *Plazatik Salarat* en Biteri organizado por Hernani Musika Eskola Publikoa.

• Araitz Zubimendi atxilotuta Baionan.

Urtarrila 29 enero

- Mendi irteera Onddi eta Adarran barrena Gazte Asanbladak antolatuta.
- Kaldereroak. Antolatzailea: Elur Txori Elkartea.
- Eider Aldabe (oro) y Joxeba Lizeaga (plata) en los Campeonatos de Euskadi de cross.

Urtarrila 30 enero

- Urumea Ikastolako Iñude eta Artzaien konpartsa.
- Musika Bandaren kontzertua Udaletxeko arkupeetan.

Urtarrila 31 enero

- INTERNETari buruzko mintegia EPOn.
- *"Integrazioa eta kultur aniztasuna Euskal Herrian"* hitzaldia Biterin.

Otsaila / Febrero

- Udalak *"Hernani garbia"* izeneko kanpaina martxan jartzen du.
- *"Hernani: XX. Mendeko ahozko historia txikia"* DVDa argitaratzen du Dobera Euskara Elkarteak.
- Hitzaldiak Langile Ikastolan: *"6 urte bitarteko neska mutilen ezaugarri psikologikoak eta sexualitatea"*, *"6-8 urte bitarteko neska mutilen ezaugarri psikologikoak, autonomia eta gurasoen eginkizunak"* eta *"Nola finkatu arauak eta mugak"*.

Otsaila 1 - 2 febrero

- Hitzaldiak Biterin: *"Eskolak, etorkinak, integrazioa eta kultur aniztasuna"*.

Otsaila 1 - 8 febrero

- Exposición organizada por la ONG Taupadak, en Biteri kultur etxea.

Otsaila 3 febrero

- KORRIKA Kulturalaren aurkezpena Kixkalen.

Otsaila 4 febrero

- Santa Agedako koroak.
- Laguntza sozialei buruzko hitzaldia Biterin.

Otsaila 4-8 febrero

- Inauteriak. José Juan Etxeberria ganador del cartel anunciador. Aralar taberna, el establecimiento mejor decorado.

Otsaila 5 febrero

- Umeentzako Xake ikastaro - txapelketa, Hernaniko Xake Taldeak antolatuta.

Otsaila 6 febrero

- Xabat Otxotorena txirrindulari hernaniarra "Mallorcako Challenge"-ean; debuta egiten du profesional mailan.
- Itziar Urdangarin campeona de Euskadi de Cross.

Otsaila 8 febrero

- Europako Konstituzioari buruzko mahai ingurua Biterin, Bai Euskararik antolatuta: *"Hizkuntza Eskubideak!"*.

Otsaila 9 febrero

- Europar Kontituzioari buruz hitzaldia, Eusko Alkartasuna alderdiak antolatuta.
- *"Guraso heziketa moduak"* hitzaldia Urumea Ikastolan, Guraso Elkarteak antolatuta.

Otsaila 9 - 17 febrero

- Exposición de pintura y fotografía de Nekane Aramburu, Txaro Barinaga-Rementeria, Laura García, Marlen Larrayoz, Marisol Yaben y Juncal Comendador, en Biteri kultur etxea.

Otsaila 10 febrero

- II Foro Municipal de Sostenibilidad, en Biteri.
- Olerki musikatuak Kixkal tabernan (KORRIKA Kulturala).

Otsaila 11 febrero

- Kantuz Abesbatzaren kontzertua Jubilatu etxean.
- Enkartelada *"Errepresaliatuak etxera"* lemarekin, ETXERATek antolatuta.

Otsaila 13 febrero

